

Zertan den Nafarroa

2015

Espainiako Unitatea

- Nafarroako ekonomiaren berrindartzea azkartu egin da eta bizi jarraituko du 2016an
- Petrolioaren prezioa, euroaren depreziazioa eta interes tasen jaitsierak lehiakortasuna eta jarduera hobetu dituzte, baina bada barne- zein kanpo-ziurgabetasunik
- Nafarroak 13 mila lanpostu irabazi ditzake 2015-2016 biurtekoan
- Langabezia gutxitzea, produktibitatea handitzea eta jarduera tasa handitzea, erronka nagusi

Aurkibidea

1	Editoriala	3
2	Ingurune globala eta Espainiako ekonomia	5
3	Nafarroako ekonomiaren hazkunde-perspektibak	9
	1. errekoadroa. Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, jarduera ekonomikoari buruzko BBVA inkestan oinarrituta. 2015eko hirugarren hiruhilekoa	31
	2. errekoadroa. Jarduera-tasa Nafarroan: egiturazko erronka	33
4	Zer diote lurraldez lurraldeko kontuek? Nafarroaren kasua	40
5	Taulak	49

Itxiera data: 2015ko urriak 2

1 Editoriala

Hainbat faktorek bide ematen dute aurreikusteko **Nafarroan BPGren hazkundera azkartu egin dela, % 3,2ra irits daitekela 2015ean eta nahiko altu eutsiko diola 2016an ere, % 2,8 inguruan**. Agertoki hori egiaztatuko balitz, **13 mila lanpostu** inguru sortuko lirateke biurteko horretan.

Joan den azaroan *Zertan den Nafarroa*¹ aldizkaria argitaratu zenetik, **jarduera ekonomikoa** eta enpleguaren sorrera **azkartu egin dira progresiboki**, barne-eskaria sustatu duten hainbat faktore lagun, errate baterako konfiantza handitzea, zerga-doikuntza txikiagoa edota finantzaketa-kostuak murriztea. Kanpo-eskariari dagokionez, aipatzekoa da esportazioen dinamismoa ere. Dena den, hurrengo hiruhilekoetan moteltze arina gertatuko dela aurreikustekoa da, ekonomia bultzatu zuten faktore batzuen eragina murrizten ari delako eta zenbait arrisku gauzatzen ari direlako.

Hurrengo hiruhilekoetan ekonomiak gorantz egiten jarraituko duela espero da, kanpoko zein barneko hainbat faktoreren laguntzaz. Alde batetik, **petrolioaren prezioaren beherakada esanguratsuak** zuzenean eragiten jarraituko du familiek eskuragarri duten errentan, berau handituz, eta ekoizpen- eta garraio-kostuak ere murriztu egingo dira. Zehazki, **Nafarroako BPG 2015. urtean 1,3 p.p. handi daitekeela aurreikusten da, energia-kostua txikiagoen ondorioz eta** merkatze horrek familiek eskura duten errentan eta enpresen lehiakortasunean duen eraginagatik. Bestetik, **EBZren politika monetarioak** nabarmenki murriztu du Herri Altxorraren finantzaketa-kostua eta eragin erranguratsua izan du euroaren eta dolarraren arteko kanbio-tasan. Aurrekoa kreditu-eragiketa berrien interes tasa txikitzen ari da jada eta berauen hazkundera sustatzen ari da eta, txanponaren depreziazioarekin batera, esportazioak bultzatzen jarraitu dezake. Ildo horretatik, **BBVA Research-en estimazioen arabera, euroak dolarraren aurrean % 20ko depreziazioa izateak -2014ko batez besteko balioarekiko- BPGren 0,9 p.p. gehi diezazkioke Nafarroako ekonomiari** 2015ean, esportazioen lehiakortasuna hobetzearen eta inportazioak ordezkatzeko prozesu sakonago baten bidez.

Aurrekoari barne-jardueraren inertzia positiboa erantsi behar zaio. **Argitalpen hau ixterako unean eskuragarri ditugun adierazleen arabera, 2015eko lehen seihilekoan Nafarroako ekonomia % 0,9 haz daiteke hiruhileko** (% 3,4 inguru urte arteko tasan) eta jarduera apur bat motelduko litzateke hirugarren hiruhilekoan; informazio hori bera berretsi du BBVAk Nafarroako bere bulego-sarean egiten duen Inkestak (ikus 1. errekoadroa). **Dinamismo handiago horren atzean barne-eskariaren sendotasuna ikus daiteke**, bereziki kontsumo pribatuagatik eta zerga-doitzea iazkoa baino apur bat txikiagoa izateagatik. Horrez gain, badirudi etxebizitza inbertsioak atzera utzi duela zikloaren uzkurraldia, eta horren ekarpena Espainiako batez bestekoaren gainera egotea espero da. Azkenik, aurtengo lehen seihilekoan azkartu egin da Nafarroako ondasunen kanpo-eskaria. Suspertze hori kontsumo-ondasun iraunkorren sektoreak izandako bilakaera positiboaren ondorio izan da, aurtun automobilgintza sektoreak ekarpen negatiboa egin baitu eta EDBn jarduera oso motel suspertzen ari den arren.

Dena den, **hainbat arrisku ere badira agertoki honetan**. Udan, Grezian eta Txinan behatutako tentsioak eta Espainiako ziurgabetasun politikoak, arrisku-saria apur bat handitzea eragin dute. Ekonomia garatuen nahiz garatzen ari direnen (Txina, nagusiki) hazkunde-espektatibak beherantz berrikustearen ondorioz, jarduera global txikiagoak hainbat ekonomiatan interes-tasen igoera atzeratzearekin (bereziki, AEBn), finantza-merkatuetan aldakortasuna handituta, euroaren depreziazioa uste baino txikiagoa izan daiteke eta EDBn hazkundera motelagoa.

Eskualde mailan, urteko lehen zazpi hilabeteetako datuek iazkoa baino bilakaera fiskal kaskarragoa erakusten dute, nagusiki diru-sarrerak murriztu direlako. Beraz, **urte amaierako helburuak lortu ahal**

1: Hemen: https://www.bbvarresearch.com/wp-content/uploads/2014/11/Situacion_Navarra_20141.pdf

izateko, Nafarroako Gobernuak gastu publikoa gauzatzean gerta daitezkeen desbideratzeak kontrolatu beharko ditu. Horrekin lotuta, gogoan izan behar da Espainiako ekonomiaren aktibo nagusietako bat azken urteetan defizit publikoa murrizteko izan duen gaitasuna dela. **Funtsezkoa da finantza publikoen kontrolaren gainean duen sinesgarritasuna**, eta, beraz, Europako erakundeen konfiantza mantentzea, **kanpo-zor handiegia duen ekonomiaren finantzaketa-kostuari eusteko**. Zerga-politikaren inguruko ziurgabetasun horri hurrengo urteetan abiaraziko diren gainerako neurriei buruzko zalantzak gehitzen badizkiogu, neurri handian areagotuko litzateke Nafarroako ekonomiaren zaugarritasuna. **Zalantza horiek are gehiago handitu daitezke Espainian laster izango diren hauteskunde orokorren aurrean**. Beraz, garrantzitsua da ahal den neurrian politika publikoak sustatzea, etorkizunean zergak kontsolidatzeko prozesua garatzeko moduaren inguruan ziurtasun apur bat emateko. Arlo hori argitzeko asmoz, argitalpen honen 4. kapituluan, Nafarroako sektore publikoaren lurraldez lurraldeko kontuak aurkeztu ditugu. Biztanleko gastu publikoa Nafarroan Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoa dela islatzen dute kontuek, eta zerga-presioa espero zitekeena baino txikiagoa dela, errenta-maila altuagoa izaki.

Azkenik, Nafarroak hainbat erronkari egin behar die aurre Europako eskualde aurreratuenen errentarekin parekatzeko. Zehazki, alde nabarmena ikus daiteke Europako eskualde nagusiekiko langabezia-tasan eta, alde txikiagoa, bai jarduera-tasan (demografiak bultzatzen du alde hori, ikusi 2. errekoadroa), bai langileko produktibitatean ere. Langabezia murrizteko eta enplegu mugagabea sustatzeko, BBVA Research-ek **kontratatzeko sistemaren erreforma** proposatu du. Proposamen hori aplikatuz gero, aldi baterako lanen tasa eta langabezia-tasa murriztu egingo lirateke, eta, horrez gain, produktibitateak eta soldatek gora egingo lukete². Halaber, **baliabideak ugaritzea eta uneotan ditugunak langileen enplegarritasuna areagotzeko ekintzetara bideratzea komeniko litzateke**, bereziki luzaroko langabeei begira. Bestalde, produktibitatea handitzeko, ezinbestekoa da aurrera egitea **arabideetan (erakundeen esparrua), lehiakortasuna indartzean eta giza kapitala hobetzean**³. Nafarroako ekonomiarako positiboa den leihoak irekita jarraitzen du, eta aukera hori baliatu behar da erreforma handizaleak abiarazteko, aldeko ditugun haizeok beste alde batetik jotzean, hazkundeari eutsi ahal izateko.

2: Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi *Situación España* aldizkariko 2. errekoadroa, 2015eko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-primer-trimestre-de-2015>

3: Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi *Situación España* aldizkariko 3. errekoadroa, 2015eko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-primer-trimestre-de-2015>

2 Ingurune globala eta Espainiako ekonomia

Ekonomia globalak, batez beste, % 3,4ko erritmoan hazten amaitu zuen 2014. urtea, eta, eskuragarri dugun informazioaren arabera, erritmo hori moteldu egin da apur bat 2015eko lehen sei hilekoan. Garabidean diren herrialdeak mantsotu egin dira azken bost urteetan, Txinaren hazkundearen geldialdiarekin eta lehengaien prezioaren moteltzearekin batera. Hala ere, garatutako herrialdeek aldeko espektatibei eutsi diete, eta, 2015. urtean, 2010. urteaz geroztik lortutako hazkunde-tasarik altuena lortuko dute, banku zentralen moneta-politikari, zorpetze pribatu txikiagoari eta petrolioaren prezioen neurritasunari esker. Probabilitate gehien duen agertokiaren arabera, munduko BPG % 3,4 handituko da 2015ean (maiatzean aurreikusitakoa baino hamarren bat gutxiago), eta % 3,8ra arte iritsiko da 2016an⁴.

Garabidean diren ekonomien artean, Txinak erakarri du arreta azken hilabeteetan, burtsa-merkatuan egin duen zuzenketa gogorraren ondorioz eta horrek barneko ziklo ekonomikoan nahiz finantza-egonkortasun eta hazkunde globalen gain izan dezakeen eraginaren ondorioz. Oraingoan, urteko lehen sei hilekoan, BPGren urte arteko hazkundera % 7koa izan da, baina, aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren erritmoa moteldu egin daiteke hurrengo bi hiru hilekoetan, tentsio finantzarioen erruz. Beraz, **Txinaren kasuan, hazkunde-aurreikuspena % 6,7koa da 2015erako, eta % 6,2koa 2016rako.**


Garatutako ekonomien hazkunde-espektatibek aldekoak izaten jarraitzen badute ere, apur bat behar bezalako berrikusi behar izan dira. Estatu Batuetan, lehen sei hilekoari dagokion balantzea espero baino okerragoa izan da, eta, arrazoi horregatik, **hazkundearen aurreikuspena % 2,5koa da 2015erako,** maiatzean aurreikusitakoa baino lau hamarren txikiagoa. Hurrengo hiru hilekoetan ziklo ekonomikoak izango duen jokaerari buruzko ziurgabetasuna handiagoa da orain, dolarraren balio handitze iraunkorrak esportazioen gain duen eragina, inbertsio pribatuaren ahultasuna eta testuinguru globalaren narriadura kontuan izanda. Hala ere, **Estatu Batuetako BPG % 2,8 haz daiteke 2016an.**

Euroguneak, bere aldetik, susperraldi iraunkorra erakutsi du, eta hiru hileko hazkundera % 0,4 ingurukoak izan dira urteko lehen sei hilekoan. Barneko eskariak, eta, bereziki, kontsumo pribatuak, jardunaren hobekuntzari eutsi diote, eta hobekuntza hori ekonomia nagusietara hedatzen ari da. Horrekin lotuta, **petrolioaren prezioaren beherakada eta EBZren moneta-pizgarriak ere euskarri garrantzitsuak dira hazkundera bultzatzeko.** Izan ere, eskariaren hobekuntzari eta EBZren likidezia-injekzioen neurriari esker murrizten ari da arrisku deflazionista, inflazio-erregistroen egonkortasunaren eta prezioek epe ertainera begira izatea espero den gorakadaren ondorioz. Hala ere, 2017ra arte itxaron beharko da oraindik % 2ko helburutik hurbil egongo diren inflazio-taseta iristeko.

Dena den, hazkunde global txikiagoaren eta eragin diferentziala duten zenbait arrisku-eremuren ondorioz, apur bat txikiagoak dira EDBrako hazkunde-espektatibak: % 1,4 artekoak 2015ean, eta % 1,9koak 2016an (maiatzean baino hamarren bat eta hiru hamarren txikiagoak). Horri dagokionez, **Errusiako atzeraldi ekonomikoak eta Txinaren moteltzeak esportazioen dinamismoa txikituko dute, euroaren depreziazioa urte hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa izan daitekeen testuinguru batean.** Bestalde, Greziako krisiaren inguruko ziurgabetasunarekin lotutako finantza-tentsioak areagotzeko inbertitzeko erabakiak oztopa ditzake, eta horixe da, hain zuzen, eurogunea suspertzeko profilaren gakoetako bat.


4: Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi BBVA Research-en *Situación Global* eta *Situación Europa* argitalpenak, 2015eko hirugarren hiru hilekoari dagokionak, hemen: <https://goo.gl/zQ3LLI> y <https://goo.gl/BAknpO>

2.1 grafikoa
Munduko BPG: urteko hazkundera (%). 2015-2016rako aurreikuspenak



Iturria: BBVA Research

2.2 grafikoa
Finantza-tentsioen BBVA indizea



Iturria: BBVA Research


Espanian moteldu egin da 2015eko bigarren seihilekoko hazkundera, aldeko haizeak baretzearen eta kontrako batzuk agertzearen ondorioz

Espaniako ekonomiak duela bi urte abiarazitako susperraldia azelerazioa izan zuen 2015eko lehen seihilekoaren amaieran (% 1,0 h/h artekoa). Hirugarren hiruhilekoari begira, txosten hau itxi den egunean behatutako aldagaien joerak adierazten du **ekonomiak gorantz jarraitzen duela, aurreko hiruhilekoetan baino motelxeago bada ere**. 3H15eko informazioaren % 50 inguru dugunean, MICA-BBVA ereduak⁵ kalkulatu du **BPGren hiruhilekoko hazkundera (h/h) % 0,6ra irits daitekeela**. Kopuru hori 2015eko hirugarren hiruhilekoko *Situación España* aldizkarian emandakoa baino hamarren bat txikiagoa den arren, **urteko hazkunde-aurreikuspenek % 3,2ra iristen dira 2015ean, eta % 2,7ra 2016an; hala, bada, aldi horretan milioi bat lanpostu inguru sortuko lirateke, eta langabezia-tasa % 20 ingurura murriztuko litzateke**.

5: MICA-BBVA ereduari buruzko xehetasun gehiago izateko, ikusi Camacho, M. eta R. Doménech (2010): "MICA-BBVA: A Factor Model of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting", BBVA WP 10/21, hemen: <http://goo.gl/zeJm7g>

2.3 grafikoa


Espainia: BPGren hazkundera eta MICA-BBVA ereduaren aurreikuspenak (% h/h)



(a): aurreikuspena.
Iturria: BBVA Research

2.4 grafikoa

Espainia: BPGren eta MICA-BBVA ereduaren adierazle nagusien bilakaera (+) hobekuntza / (-) andeatzea p.p.-tan, kontrakorik esan ezean (UEEZren datuak)



2015eko irailaren 8ra arte argitaratutako datuak eta MICA-BBVA ereduaren aurreikuspenak.
Iturria: BBVA Research, erakunde ofizialetan oinarrituta

Bigarren seihilekoan jarduera moteltzeko arrazoiak hainbat izan dira: urte hasierako eskaria bultzatu zuten **aldeko haizeen indarra** moteldu egin da; arrisku-saria handitu da, hurrengo hauteskunderik sortzen duten ziurgabetasunaren ondorioz, hein batean; eta, azkenik, **kontrako haizeak iritsi dira kanpotik**. Hazkundera bultzatzen duten faktoreen artean, honako hauek azpimarratu behar dira: kanpora begira, EBZren moneta-politika eta petrolioaren eskaintza handitzea; eta, barrura begira, berriz, 1S15eko zerga-politikak aurreikusitakoa baino izaera hedakor handiagoa izatea. Kontrako haizeei dagokienez, honako hauek aipatu behar dira: **ekonomia garatuen nahiz garatzen ari direnen (Txina, nagusiki) hazkunde-espektatiben beheranzko berrikuspena**; horrekin batera, jarduera global txikiagoak **hainbat ekonomiatan interes-tasen igoera atzeratzea derrigor dezake (berezik, AEBn)** eta, horren ondorioz, finantza-merkatuetan nahiz lehengaien kotizazioan aldakortasuna areagotu daiteke (Greziako krisiak ere bultzatu zuen aldakortasun hori). Faktore horien ondorioz, udaberrian euroarentzat aurreikusitako kanbio-tasa uste baino gutxiago depreziatuko da, EDBn aurreikusitakoa baino hazkunde txikiagoa gertatuko da, eta Espainiako arrisku-saria handitu egingo da, gehiegi ez bada ere. Horrek guztiak merkataritza-fluxuen eta inbertsioaren aurrerapena partzialki muga dezake.

Espainian, zenbait arrisku gertatzeko probabilitatea ere handitu egin da. Zehazki, aurreikuspenen arabera, neurri osagarririk hartzen ez bada, Herri Administrazioen defizita BPGren % 4,5 ingurukoa izango da urte amaieran, egonkortasun-helburua gaindituta. Gerta daitekeen desbideratzea oso handia izango ez den arren, gogoratu behar da Espainiako ekonomiaren aktibo nagusietako bat azken urteetan egiturazko defizit publikoa murrizteko ahalmena izan dela. Finantza publikoen kontrolaren gaineko sinesgarritasunari eustea, eta, beraz, Europako erakundearen konfiantzari eustea funtsezkoa da kanpo-zor handiegia duen ekonomia baten finantzaketa-kostuari eusteko. Zerga-politikari buruzko ziurgabetasun horri hurrengo urteetan abiaraziko diren gainerako neurrien inguruan sor litezkeen zalantzak gehitzen badizkiogu, Espainiako ekonomiaren zaugarritasuna nabarmenki areagotuko da.

Laburtuz, **jarduna eta enplegua suspertzeari buruzko balioespenari utsiko zaio, BBVA Research-ek agertoki nagusian 2015-2016 biurtekorako behatutakoaren ildotik, baina Espainiako ekonomiarentzat horren positiboak ez diren agertokiak gertatzeko aukera areagotu egin da**, suspertze globalari buruz sortu den ziurgabetasunaren eta moteltzea esperotakoa baino handixeagoa izateko aukeraren ondorioz.

2.1 koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak

	2012	2013	2014	2015	2016
Jarduera					
BPG erreala	-2,1	-1,2	1,4	3,2	2,7
Kontsumo pribatua	-2,9	-2,3	2,4	3,4	2,5
Kontsumo publikoa	-3,7	-2,9	0,1	1,3	0,6
Kapital-eraketa gordina	-8,3	-3,7	4,2	5,4	6,1
Ekipoak eta makineria	-9,1	5,3	12,2	8,6	7,2
Eraikuntza	-9,3	-9,2	-1,5	5,1	4,8
Etxebizitza	-9	-7,6	-1,8	3	7,2
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	-4,3	-2,7	2,2	3,3	2,8
Esportazioak	1,2	4,3	4,2	4,6	6,9
Inportazioak	-6,3	-0,5	7,6	5,5	7,5
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	2,2	1,4	-0,8	-0,1	0
BPG nominala	-1,9	-0,6	0,9	4	4,7
(Mila milioi euro)	1055,2	1049,2	1058,5	1101	1152,4
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-1,7	-0,9	1,5	3,2	2,6
BPG, eraikuntza gabe	-1,1	-0,2	1,7	3	2,5
Lan-merkatua					
Enplegua, BAI/EPA	-4,3	-2,8	1,2	3,2	3
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	24,8	26,1	24,4	22,2	20,5
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-4,4	-3,3	1,2	3	2,5
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	2,3	2	0,2	0,2	0,2
Prezioak eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	2,4	1,4	-0,2	-0,4	1,2
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	2,9	0,3	-0,5	0	1,6
BPGren deflatoea	0,2	0,7	-0,5	0,8	1,9
Soldatapekoen ordainsaria	-0,6	1,7	-0,2	0,8	1,7
Unitateko lan-kostua	-3	-0,3	-0,4	0,7	1,5
Kanpo-sektorea					
Kontu korronteko balantza (BPGren %)	-0,3	1,4	0,8	1,3	1,4
Sektore publikoa					
Zorra (BPGren %)	84,4	92,1	97,7	98,8	98
Herri Administrazioen saldoa (BPGren %) (*)	-6,6	-6,3	-5,7	-4,5	-3
Etxeak					
Errenta nominal eskuragarria	-3	-0,3	1,4	2,8	3,1
Aurrezki-tasa (errenta nominalaren %)	11,9	9,7	10,7	9,9	9,8

(*) Ekarpenak hazkunderari

(e): estimazioa; (a) aurreikuspena

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

3 Nafarroako ekonomiaren hazkunde-perspektibak


2014ko azaroan aurreko *Zertan den Nafarroa* argitaratu zenetik, hainbat faktorek eragin diote eskualdearen ekonomiari. **Petrolioaren prezioaren bat-bateko gainbehera, euroaren depreziazioa eta Europako Banku Zentralak egindako hainbat iragarpen, Espainiako ekonomia finantzatzen den interes-tasak murrizteko aukera eman dutenak**, nabarmendu dira nazioarteko ekonomiaren testuinguruan. **Faktore horiek guztiek lagundu dute Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetzen.**

Eskualde mailan, **BPGren hazkundea 2014an % 2,0koa izan zen**, Espainiako batez bestekoa baino sei hamarren handiagoa (ikusi 3.1 grafikoa), eta BBVA Research-ek egindako aurreikuspenaren gainetik. Nafarroako industriak hazkunderari egindako ekarpenak, 1 p.p.-koak (Espainiakoa baino 8 hamarren handiagoa), azaltzen du alde hori. Eskuragarri dugun informazioaren arabera, 2015eko lehenengo seihilekoan jardunak bizkortzen jarraitu zuen, baina Espainiako ekonomiaren multzoan baino dinamismo txikixeagoarekin. Aurrekoaren atzean barne-eskariaren hazkunde handiagoa ahalbidetu duten zenbait faktore ditugu, hala nola **konfiantza handitzea, zerga-doikuntza txikiagoa eta enpresen eta familien finantzaketa-kostua murriztea**. Bestalde, 2014an ondasunen esportazioek izandako hazkundeak aurreko urtean behatutako diferentzial negatiboa itxi zuen Espainiako batez bestekoarekiko eta, gaur egun, maila altuari eusten diete, batez bestekoaren gainetik.

Dena den, **hazkundea sustatu duten zenbait faktoreren eraginak ahultzen hasi direla esan daiteke**. Zehazki, hirugarren hiruhilekoari buruz ezagutzen ditugun lehenengo datuek dinamismo txikixeagoa islatzen dute eta horixe berresten dute, baita ere, Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek (ikusi 3.2 grafikoa). Hala, bada, hurrengo hilabeteetan oraindik hazkundea nahiko handia izango den arren, Nafarroako ekonomiarako MICA-BBVA ereduak adierazten duenaren arabera, aurreko hiruhilekoetan behatutakoa baino hamarren bat edo bi ahulagoa izan daiteke. Hala ere, lehenengo seihilekoan aurreikusitakoa baino handiagoa izango denez azelerazioa –bigarren seihilekoaren profila beheranzkoa izango den arren–, **Nafarroako BPGren hazkunde-aurreikuspenak gorantz berrikusiko dira: % 3,2ra iritsiko dira 2015ean, eta % 2,8ra 2016an**. Agertoki hori betetzen bada, **Nafarroako ekonomiak 13 mila enplegu inguru sor ditzake 2015-2016 biurtekoan**.

3.1 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: BPGren hazkundera 2014an, eta sektoreek egindako ekarpenak (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.2 grafikoa

Nafarroa: jarduera ekonomikoari buruzko espektatibak eta BPGren hazkundera (muturreko erantzunen saldoa, BBVA Inkesta eta %, h/h)



Iturria: BBVA

Kontsumo pribatuaren dinamismoak barne-eskaria sustatu du

Espainia osoan sumatu denaren ildotik eta 2013an abiarazitako joera-aldaketarekin jarraituz, **Nafarroan, kontsumo pribatuak bilakaera positiboa izan zuen 2014an eta 2015eko lehen hiruhilekoetan**. Hainbat euskarri izan ditu aurrerabide horrek: lan-merkatuaren dinamismoa, errenta erabilgarria handitzea, **egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi hobea**⁶, finantza-aberastasun garbia handitzea, interes-tasen murrizketak ekarritako finantza-baldintza lasaiagoak eta PIVE programaren indarraldia⁷. Hala, bada, 2014. urtean, **ibilgailuen matrikulazioak % 5,3 handitu ziren eskualdean (Espainian baino hiru hamarren gutxiago), eta, batez beste, % 5 h/h inguru handitu dira** urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan (% 4,3 Espainian, ikusi 3.3 grafikoa).

Bestalde, **eskualdeko kontsumo-ondasunen inportazioek ere azelerazioa izan dute 2015eko lehen erdian, aurreko urtean % 1,1 erori ondoren**: kontsumo-ondasun iraunkorren eta kontsumo-manufakturen inportazioen batez besteko hazkundera % 7,2 h/h-koa izan da; Espainian, berriz, % 1,3 h/h-koa.

Seinalea ez da horren argia xehekako salmenten adierazleari begiratzen badiogu. Kasu horretan, 2014ko suspertzea (batez beste, % 0,8 urte osoan, Espainian baino hamarren bat gehiago) atzeraldi izango da Nafarroan (batez beste, % 0,7 h/h lehenengo sei hilekoan), bigarren hiruhilekoan gertatutako zuzenketa gogorraren ondorioz (ikusi 3.4 grafikoa)


Dena den, 2014ko adierazle partzialek eta 2015eko orain artekoek adierazten dutenez, **kontsumo pribatua azkartu egin zen urte honetako lehen sei hilekoan**, eta bat dator horretan ere Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan salmentei buruz lortutako informazioa (ikusi 1. errekoadroa). Hala ere, hirugarren hiruhilekoari buruz ditugun datuek seinale mistoak ematen dituzte, eta kontsumoan egindako gastuak BPGren hazkunderari egiten dion ekarpena aurreko hilabeteetan baino txikiagoa dela adierazten dute. Zehazki, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, matrikulazioek bariazio-tasa positiboa agertuko lukete, baina lehen sei hilekoan batez beste behatutakoarenaren azpitik; kontsumo-ondasunen inportazioak % 9,8

6: Ikusi 1. errekoadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta.

7: PIVEren helburua autoak eta ibilgailu komertzial arinak ordezkatzeta da, 10 urte eta 7 urte baino gehiagokoak, hurrenez hurren, eta horien ordezkari energetikoki eraginkorragoak diren ibilgailuak eskaintzea. 2015eko martxoaren 1etik abian da PIVE plan berria. Horri buruzko informazio gehiago, hemen: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/espana-las-matriculaciones-de-turismos-volvieron-a-crecer-mas-de-lo-esperado/>.


h/h ingurura jeitsiko lirateke eta, xehekako salmentek gora egin dezakete, 2015eko bigarren hiruhilekoan izandako erorikoaren ondoren.

3.3 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: matrikulazioak* (% , h/h, UEEZ)



(*) 3H15erako estimazioa, abuztura arteko informazioarekin. Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.4 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: xehekako salmentak* (% , h/h, UEEZ)



(*) 3H15erako estimazioa, abuztura arteko informazioarekin. Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2015eko helburua betetzeko, ez da desbideratzerik gertatu behar gastu publikoan


2013ko helburua bete ez bazen ere, **Nafarroako Foru Erkidegoak 0,7 p.p.-tan murriztu zuen defizita 2014an; hala, eskualdeko BPGren % 0,7an kokatu zuen**, ekitaldi horretarako adostutako **egonkortasun-helburua betez** (-% 1,0). Doitze hori **diru-sarrerak suspertzearen ondorio izan zen** –handiagoa zergei ez dagozkien baliabideetan–, bai eta gastua murrizteko beste ahalegin bati esker ere, nagusiki kapital-gastua hiru hamarren inguru murriztu baitzen (ikusi 3.5 eta 3.6 grafikoa).

Modu horretan, Nafarroaren zorra BPGren % 17,9ra arte igo zen 2014an, eta autonomia erkidegoetako batez bestekoaren (% 22,5) azpitik gelditu zen berriro. 2015eko lehenengo hilabeteetan, Nafarroako Gobernuak epe luzeko maileguak eskatu zituen, 392 milioi guztira (BPGren 2,1 p.p.-ren baliokideak), eta BPGren % 19,3ko zorrarekin itxi zuen urteko bigarren hiruhilekoa.

2015. urteari begira, 2015eko maiatzera arte ezagutzen ditugun aurrekontua gauzatzeko datuek adierazten dutenez, **Nafarroako Foru Erkidegoa iaz baino bilakaera okerragoa izaten ari da, nagusiki, diru-sarreraren eraginez**. Hala, bada, 2015eko uztaiera arte, zerga-bilketa 2013koa baino % 1,4 txikiagoa izan zen, gutxi gorabehera, BEZaren diru-sarrerak murriztearen ondorioz –Gobernu zentralak itzulketak egiteko adostutako egutegi-aurrerapenaren eraginez–. Bestalde, autonomia-erkidegoaren gastuak % 3,3 handitu dira aurreko urteko ekitaldi berarekin alderatuta, hein handian, funtzionario publikoei 2012an kendutako aparteko ordainsariaren zati bat itzuli zaielako. Aurreko urtearekiko izan den oinarritzko gastuaren hazkundera erakusten du 3.7 grafikoa. Herri-administrazioen arteko transferentzietan erregistratu dira soilik eroriko esanguratsuak. Horren ondorioz, Nafarroako defizita BPGren -% 1,4an kokatu zen uztaila bukaeran, 2014ko maiatzera arte erregistratutakoaren gainetik, bortz hamarren inguru.


Testuinguru horretan eta, diru-sarrerak gauzatzeko egutegi desberdina kontuan hartuz, **baliteke Nafarroako Gobernuak egonkortasun-helburua betetzea 2015. urte bukaeran (-% 0,7), gastu publikoaren gaineko kontrola lasaitzen ez den heinean**.

3.5 grafikoa
Nafarroa: finantzaketarako gaitasuna/beharra (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.6 grafikoa
Nafarroa: zerga-doikuntza (eskualdeko BPGren puntu portzentualak)



Oharra: (+) Diru-sarrerak handitu, gastuak murriztu, eta defizita txikitu; (-) Diru-sarrerak txikitu, gastuak handitu, eta defizita handitu
Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.7 grafikoa
Nafarroa: oinarritzko gastuen ekarpena hazkunderari (eskualdeko BPGren %)



* Uztailera arteko datuak.
Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

2015eko lehenengo datuek eraikuntza-jarduera suspertzen ari dela adierazten dute

Nafarroako higiezinaren merkatuko 2014ko datuek higiezinaren alorreko eskariaren eta eskaintzaren suspertze-eritmo desberdinak islatu dituzte. Eraikuntza-jarduera uzurtu egin zen eta ez zion erantzun salmentetan erregistratutako hazkunderari (Estatuko batez bestekoa baino handiagoa). Bestalde, aurreko urtean izandako igoeraren ondoren, etxebizitzaren prezioak beheraldia izan zuten 2014an, batez bestekoa baino handiagoa. 2015. urteari dagokionez, eskura ditugun datuek seinale kontrajarriak adierazten dituzte: urte artean, salmentek behera egin zuten, eta prezioek Espainiakoek batez beste izandakoak baino bilakaera okerragoa erakutsi zuten, zuzenketa neurritsuagoa izan arren. Hala ere, eraikuntza-jarduera batez bestekoa baino gehiago hazi zen urteko lehenengo erdian.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, etxebizitzaren salmentek Nafarroan Espainian baino hazkunde handiagoa izan zuten 2014an: batez beste, % 30,9koa, Espainiak batez beste izandako % 21,6ren aurrean. Nafarren erosketen hazkunde horren sostengu izan dira, besteak beste, finantza-merkatuen egonkortasuna, interes-tasek baxutik jarraitzea, enplegua sortzea edota etxeetan konfiantza handiagoa izatea. Espainiak batez beste izandako hazkunde ekonomikoa baino handiagoa izan du Nafarroak, eta, bestalde, langabezia-tasa ere txikiagoa denez, eskualde horrek dinamismo handiagoa erakutsi du eskarien arloan, eta nafarren erosketak % 34,7 handitu ziren, Espainiako batez bestekoaren gainetik (% 29,4). Horrekin batera, beste autonomia-erkidego batzuetako egoiliarrek egindako erosketen kopurua ere handitu egin denez, eskualdeko salmenten dinamismoa batez bestekoaz gorakoa izan da. Bestalde, atzerritarren etxebizitza-eskariak oso txikia izaten jarraitu du eta oso eragin murrizta izan du erkidegoko merkatuan; hala ere, oraingoan horren ekarpena positiboa izan zen, eskariaren atal horrek 2013an lortutako maila baxuenaren ondoren gora egin baitzuen (ikusi 3.8 grafikoa).


2015. urteari dagokionez, eskura ditugun azken salmenta-datuak bigarren hiruhilekoari dagozkio. Aldi horretan, eskualdeko salmentek % 6,7 gutxitu ziren urte artean; Espainian, berriz, batez beste, % 9,7 gehitu. Arloka begiratuta, etxeko eskariak urte arteko % 0,6ko hazkundera izan zuten 2015eko lehen sei hilekoan, batez beste izandako % 12,7ko igoeraren azpitik. Hazkunde hori ez zen nahikoa izan beste autonomia erkidego batzuetako egoiliarrek egindako eragiketarako urte artean izandako % 50eko erorikoa orekatzeko.

Etxebizitzaren prezioaren bilakaerak ez zion erantzun etxebizitzaren eskariaren jokaerari. Nafarroako etxebizitzaren prezioak 2013an izandako hazkunderaren ondoren (% 1,2), iaz merkatu egin zen berriro erkidegoko etxebizitzaren prezioa, Sustapen Ministerioaren datuen arabera. Eroriko hori handitzen joan zen, gainera: urteko lehen erdian prezioak % 4,9ko urte arteko tasan egin zuten behera, eta bigarren sei hilekoan, berriz, % 5,9koa izan zen tasa hori. Dena den, iaz etxebizitzaren prezioa % 5,4 merkatu zen; horren aurrean, Espainian, batez beste, % 2,4 merkatu zen. Lehenengo sei hilekoari dagozkion datuek berretsi egin zuten etxebizitzaren prezioak egonkortasunerantz hartutako joera: lehenengo hiruhilekoan Espainian egonkor eutsi zion arren, prezioak behera egiten jarraitu zuten (-% 3,1 u/u), baina bigarren hiruhilekoan % 1,3 u/u-ko hazkundera lortu zuten, Espainiako batez bestekoaren antzekoa.

Nafarroako eraikuntza-jarduera uzkurto egin zen berriz 2014an, Espainian gertatuaren kontrara. Sustapen Ministerioak etxebizitza berriak eraikitzeke emandako bisatuen datuek adierazten dutenez, etxebizitza berrien abiarazteak urte arteko % 20ko jaitsiera izan zuten 2014an, aurreko bi urteetan izandako zuzenketa handiaren ondoren. Bilakaera hori ez dator bat Espainian behatutako % 1,7ko hazkunderarekin. Bestalde, 2015. urteko lehen zazpi hilabeteetan, etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuak % 13ko urte arteko tasan handitu ziren, aldi horretan bertan Espainian behatutakoa % 28aren azpitik (ikusi 3.9 grafikoa). Dena den, erkidegoan etxebizitza berrien gaitasunaz ez dagoenez (Sustapen Ministerioak joan den uztailan argitaratutako azkeneko datuen arabera, Nafarroan ez dago ia etxebizitza berririk saldu gabe), etxebizitza berrien suspertze-erritmoa batez bestekoaz gorakoa izatea espero da.

3.8 grafikoa


Nafarroa: etxebizitzaren salmenten urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.9 grafikoa

Nafarroa: etxebizitza berriak eraikitzeko bisatuak (UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Lizitazioak aurrerapen garrantzitsua izan du urteko lehen erdian


Nafarroan, Espainiako batez bestekoaren azpitik hazi zen lizitazio-aurrekontua 2014an. Eraikuntza-entrepresa handien patronalaren (SEOPAN) datuen arabera, % 11,4ko hazkundera izan zuen, bi urtez murrizketak izan ondoren. Iazko hazkundera obra zibilean behatutako suspertzearen ondorio izan zen, eta % 40 handitu zen horren aurrekontua, eraikuntzetara zuzendutako atala murriztu egin baitzen. Obra hidraulikoek bereganatu zuten aurrekontuan eskualdeko obra publikoetarako zuzendutako zatirik handiena. Horien atzetik, eskualdeko errepideen obrak kokatu ziren.

2015eko lehen sei hilekoko lizitazio-datuak hobekuntza handia izan dela berresten dute, 2014. urte osokoa gaintzen du jada. Zehazki, urtarriletik uztaile bitartean obra publiko berrietara zuzendutako aurrekontua % 217 handitu zen urte artean, Espainian erregistratutakoa baino gehiago, lizitazio-aurrekontua % 19,2 gutxitu baitzen garai berean (ikusi 3.10 grafikoa). Hainbat alderdik bultzatu zuten hori: eraikuntza-obren bilakaera onak, urtarriletik uztaile % 95,0 handitu baitziren urte artean, eta obra zibilera zuzendutako aurrekontua suspertzeak, 2,5 aldiz biderkatu baitzen garai berean. Obra motari begiratuta, erkidegoko errepide-sarean garatutako obrak azpimarratu behar dira, bai eta urbanizazio-obrak ere.

Finantzaketa-erakundeei dagokienez, berriz, Estatuaren aurrekontuan % 70,1eko gorakada izan zen 2014. urtean aurreko urtearekiko, nahiz oraindik nahiko baxu dagoen, eta Lurralde Erakundeek % 6,2 handitu zuten aurrekontua. 2015eko lehen zazpi hilabeteetan, Estatuaren aurrekontua handitu egin da berriro (5,4 bider handiagoa da), eta Lurralde Erakundeena ia hirukoiztu egin da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (ikusi 3.11 grafikoa).

3.10 grafikoa


Herri-lanak lan motaren arabera: urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (2015eko urt.-uzt., p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

3.11 grafikoa

Nafarroa: lizitazio-aurrekontua eragileko (milioi euro)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Esportazioek dinamismoari eutsi diote lehen seihilekoan

Azken urteetan behatutako bilakaera positiboarekin jarraitu dute esportazioek; hala, **atzerria zuzendutako Nafarroako ondasunen esportazio errealak % 7,9 handitu ziren 2014an** (Espainian baino 4,4 p.p. gehiago), eta eskualdeko ekonomiaren azelerazioaren euskarri bihurtu dira. **Aldeko portaera horrek berdin eutsi dio 2015eko lehen erdian; hala ere, uztailleko datu txarren ondorioz, 2015eko lehenengo hiru hiruhilekoetako batez bestekoan, kanpoko salmenten hazkundea % 0,2 h/h UEEZ arte motelduko litzateke Nafarroan** (Espainian, batez beste, % 0,7koa da). Dena den, eskualdeko esportazioak Espainiakoen antzeko mailan kokatzen dira krisi hasierako kopuruekin alderatuta (ikus 3.12 grafikoa).


Termino nominaletan, esportazioen hazkundea % 8,8koa izan zen 2014an, 8 mila milioi eurotik gora, 2011n baino lortu ez zen kopuru. Horrela, **esportazioek BPGren gainean duten pisua gehieneko historikoan da berriro (% 45,3), Espainiako batez bestekoa bikoiztuz (% 22,7)**. Sektoreek hazkunde horri egindako ekarpena 3.13 grafikoa ikus daiteke: 2014an, hazkundearen 8 puntu portzentualeko ekarpena **ekipo-ondasunei (4,6 p.p.) eta automobilgintzari (2,6 p.p.)** dagokie ia osoki.

2015eko uztailera arte, esportazioen dinamismoari eutsi zaio: % 8,3 u/u-ko hazkunde metatua eta kontsumo-ondasun iraunkorren 6 p.p.-ko ekarpena izan dira, etxeko tresna elektrikoaren portaera onak bultzatuta (Ezkirotzen ontzi-garbigailu trinkoen linea berri bat ireki izanarekin batera⁸). Gainera, **ekipo-ondasunek ere bilakaera ona izan dute, eta 2,1 p.p.-ko ekarpena egin diote hazkundeari aldi horretan. Aitzitik, automobilgintzak 1,2 p.p. kendu dizkio hazkundeari.**

8: <https://www.bsh-group.com/laender/es/index.php?showPI&pm=146642>

3.12 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: ondasunen esportazio errealak (% UEEZ, mar.-08=100)



(*) 3H15rako estimazioa, uztailera arteko datuekin
Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.13 grafikoa

Nafarroa: ondasunen esportazio nominalen hazkundera sektoreka egindako ekarpena (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


2015eko azken hilabeteetan uztailera arteko joerari eutsiz gero, Nafarroak automobilgintzako kuotarik txikienarekin itxi dezake urtea ondasun-esportazioei dagokienez, eta kopuru osoaren % 41,5etik behera kokatuko litzateke (ikusi 3.14 grafikoa). Maila hori 2008an lortutakoaren antzekoa da: urte horrekin alderatuta, elikagaien ekarpenaren hazkundera nabarmentzen da (azken urteetan, esportazioen % 10 baino gehiago) eta, azken aldirian, kontsumo-ondasun iraunkorra (% 5eko kuota gaintuz). Murrizketak ekipo-ondasunei (4 p.p.) eta erdi-manufakturatuei (2 p.p.) dagozkie; oro har, une honetan Nafarroako esportazioen % 40 baino gutxiago dira.

Helmugei dagokienez, **EB-27ra zuzendutako salmenten ekarpen positiboak zehaztu du ondasunen esportazioen bilakaera**, bai 2014an (hazkunderaren 8,8 p.p.-tik 4,7 horri dagozkio), bai 2015eko uztailera arteko aldirian (8,3 p.p.-tik, 7,3 horri dagozkio, urte artean; ikusi 3.15 grafikoa). Frantziak eta Alemaniak eragin dute EBk izandako hazkunderaren herena. Ipar eta Ertamerikak 3,3 eta 1,8 p.p.-ko ekarpena egiten dute aldi horietan. Europar Batasunera zuzendutako salmenten ikuspegi positibo hori kontuan hartuta, helmuga horrek pisua berreskuratu du, eta Nafarroatik esportatutako ondasunen % 70 hartzen du oraindik. Bestalde, Ipar eta Ertamerikak % 10 hartzen dute, eta Asia % 5aren azpitik geldituko litzateke, Afrikarekin batera (hau lehen aldiz 2011tik). Herrialdeei begiratzen badiegu, 2014an bi bezero nagusien hazkundera nabarmendu da: Frantzia (% 5,8) eta Alemania (% 2,6); horien aurrean, hirugarrenak, Erresuma Batuak behera egin du (-% 7,4). Amerikan, Estatu Batuetara zuzendutako salmentak nabarmentzen dira (% 77, Nafarroaren seigarren bazkide komertziala eta europarra ez den lehena); BBVA-EAGLES⁹en barneko herrialdeei dagokienez, Brasilera (% 65) eta Mexikora (% 46) zuzendutako esportazioek gora egin zuten eta Txinarakoak % 26 murriztu ziren. Orotara, BBVA-EAGLES herrialdeetara zuzendutako salmentak % 16,7 handitu ziren eta eskualdetik atzerrira zuzendutako salmenten % 12 dira.

Beraz, **esportazioen helmugak dibertsifikatzea da oraindik ere eskualdeak duen erronketako bat**; garabidean diren merkatuen hazkunde-ahalmen handia baliatzeko aukera emango luke horrek, eta Europar Batasuneko bazkideenganako mendekotasuna murriztu.


9: Saurdi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia. Xehetasun gehiagorako, ikusi: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/situacion-eagles-informe-anual-2015/>

3.14 grafikoa
Nafarroa: esportazioa sektoreka (balioaren %)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.15 grafikoa
Nafarroa: ondasun-esportazioen hazkundeari egindako ekarpena, eremu geografikoen arabera (%)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Bestalde, atzeritik Nafarroara zuzendutako ondasunen inportazio errealak % 7 handitu ziren 2014an (Espainian % 8,6), eta 2013 erdialdean abiarazitako susperraldiaren bidetik doaz, krisia hasi aurretik lortutako mailaren % 80ra iristen diren arren. Termino nominaletan, automobilgintzaren ekarpenak 4 p.p.-ko hazkundea eragin zuen, eta ekipo-ondasunen inportazioak (3,5 p.p.) erdi-manufakturatuen eta lehengaien erorikoa orekatzen lagundu zuen.

Eskuragarri ditugun azken datuen arabera, atzerriko ondasunen inportazio errealek hazten jarraitu dute 2015eko lehenengo hiru hiruhilekoetan (% 1,3 h/h UEEZ), eskualdeko barne-eskariaren suspertze progresiboak bultzatuta (ikusi 3.16 grafikoa). 2015eko uztailera arteko epean behatutako hazkundea (% 5,9 u/u nominala) automobilgintzaren eta erdi-manufakturatuen sektoreei dagozkie nagusiki (2 p.p. baino gehixeago bakoitzak), eta ekipo-ondasunen ekarpena 0,7 p.p.-koa baino ez da izan (ikusi 3.17 grafikoa).

Hala, bada, atzerrira zuzendutako Nafarroako ondasunen soberakin komertziala lau mila milioi euro baino gehiagokoa izan zen 2014an (aurreko urtean baino % 14 gehiago ia), eta aurtengo uztailera arte metatutako hazkundea apur bat txikiagoa (11 p.p.).

3.16 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: ondasunen inportazio errealak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.17 grafikoa

Nafarroa: ondasunen inportazio nominalen hazkundeari sektoreek egindako ekarpena (% p.p.)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Turismoak azken bi urteetan izan duen hazkunde handia moteldu egin da 2015ean

2013an % 4,8 handitu ondoren, **iaz Nafarroa bisitatu zuten bidaiarien kopurua % 6,0 u/u handitu zen, urteko erdiko hiruhilekoetako hazkunde handiekin.** Eskura ditugun 2015eko datuen arabera, 2014ko laugarren eta 2015eko lehen hiruhilekoetan kopuru horiek okerragoak izan arren, eskualdeko turismoa suspertzen ariko litzateke azken hilabeteetan. Halaz, hiruhilekoko batez besteko hazkunde positiboak (% 1 h/h UEEZ hirugarren hiruhilekora arte, ikusi 3.18 grafikoa) ez du oraindik, urte artekoan, hazkunderik islatzen erkidegoko hoteletan ostatu hartu duten bidaiari kopuruan.

Joera hori bera ikusten da ostatu-gauen kasuan, eta, zehazki, bidaiari nazionaletan, eskualdean egiten direnen % 77 inguru baitira. Atzerritarrek eskualdean igarotako ostatu-gauen joera ona izan bada ere (urte artean % 3,7 inguru igo dira), **Espainiatik iritsitako turistaren kasuan geldialdia gertatu da hiruhilekoko batez besteko datuetan** (ikusi 3.19 grafikoa), eta sektoreak eskualdean izandako emaitzak baldintzatu ditu horrek. **Hoteletako prezio errealean doitzea Euskadin edo Errioxan egindakoa baino handixeagoa izan da**, baina Aragoi behatutako doikuntzatik urrun dago oraindik (ikusi 3.20 grafikoa). Nolanahi den, Espainiako barne-eskariaren dinamizazio progresiboari lehiakortasunaren irabaziak erantsi behar zaizkio, eta ondorioz, sektore turistikoak eskualdeko ekonomia bultzatu beharko luke hurrengo hiruhilekoetan.

3.18 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: turisten sarrera (% h/h, UEEZ)



(*) Segidaren ondorengo puntua estimazioa da
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.19 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: Espainiako turisten ostatu-gauak (% h/h, UEEZ)



(*) Segidaren ondorengo puntua estimazioa da
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.20 grafikoa

Hoteletako prezio errealeen zuzenketa (2008=100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Enpleguaren arloan, berretsi egin da joera-aldaketa, aurtengo hirugarren hiruhilekoan halako moteltze bat nabarmendu den arren


Aurreko hiruhilekoetako jarduera-adierazleetan behatutakoaren ildotik, **2014. urtean jarraipena izan du 2013ko bigarren erdian lan-merkatuan gutxika-gutxika sumatutako susperraldiak**, eta % 0,9ko hazkundera izan du (u/u) Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruan¹⁰ (% 1,6koa izan da Espainian). 2015. urteaz eskura ditugun datuek azaltzen dutenez, lan-merkatuak iaz baino bilakaera hobea izan du, nahiz eta **hazkunde hori apur bat moteldu den hirugarren hiruhilekoan. Dena den, hiruhileko batez besteko hazkundera % 0,7koa litzateke (h/h, UEEZ) 3H15 arte** eta, hortaz, Estatuko batez bestekoaren azpitik legoke (% 0,8 h/h, UEEZ, ikusi 3.21 grafikoa); nolana ere, hazkunde positiboko zortzi hiruhileko lirateke.

10: Zaintzaile ez-profesionalak kanpoan utzita.

Hirugarren hiruhilekoko afiliatuen bilakaeraren arloan enplegu sorreran ikusten den moteltzeari **begira**, puntu komunak eta desberdintasunak, bietarik, ikusten dira **Nafarroaren eta Espainiaren artean**. Lehen seihilekoan ez bezala, enpleguari egindako ekarpena berdina edo txikiagoa da sektore guztietan hirugarren hiruhilekoan, bi geografia horietan. 3H15eko datuak sektoreka aztertuz gero, soilik merkataritza, garraio eta ibilgailu konponketarenak du ekarpen handiagoa Espainian, Nafarroan baino. Ostalaritzak, berriz, nahiko ekarpen konstantea egin du urtean, bi esparruetan. Bestalde, **manufakturen sektoreak, erkidegoan ekarpen handiagoa duenak** (eta afiliazio guztian % 23ko pisua duenak, Espainiako % 12koa ia bikoiztuz), **moteltzen jarraitzen du hirugarren hiruhilekoan**.

3.21 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: Gizarte Segurantzako afiliazioa, zaintzaile ez-profesionalak kanpoan utzita (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzatik abiatuta

3.1 koadroa

Gizarte Segurantzako afiliazioari hiruhilekoan egindako ekarpenak (% UEEZ)


	Nafarroa			Espainia		
	1H15	2H15	3H15	1H15	2H15	3H15
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	-0,1	0,2	0,0
Ind. Erauzle eta Energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufakturak	0,2	0,3	0,1	0,1	0,1	0,0
Eraikuntza	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0
Merkat. Garraio eta Ibilg. konponk.	0,1	0,1	0,0	0,2	0,2	0,1
Ostalaritza	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Komunik., Finantz eta higiez.zerb	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0
Jard.Prof.	0,2	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1
Zerb.Publi.	0,1	0,1	0,1	0,3	0,1	0,0
Gizarte Zerb.eta Jard.Artist.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Resto (include Hogar)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	0,8	0,9	0,4	1,0	1,1	0,3

Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek ere enplegua eskualdean apur bat indartu egin dela erakusten dute, bai 2014. urtean eta bai 2015. urtearen lehen erdian ere. Hala ere, Espainian sumatzen denarekin alderatuta eta batik bat afiliazioari buruzko datuei begira jarrita, batez besteko hazkunde hori handiagoa izan zen 2014an (% 1,7 u/u vs % 1,2 Espainian) 2015eko lehen sei hilekoan baino (% 0,6 u/u, eta Espainian, % 3,1). Sektoreen ikuspegitik, hazkundera batez ere zerbitzu pribatuetan oinarritu da, bai eta eraikuntzan ere, neurri txikiagoan kasu horretan. Aldiz, ekarpen negatiboko hiru hiruhileko ditu industriak, urtarokotasuna zuzenduta (ikus 3.22 grafikoa). Horrez gain, BAI n batez beste % 2,8 soldatadun gutxiago ageri dira 2015eko lehen sei hilekoan aurreko urtean baino: soldatadun publikoen artean, % 3,6koa izan da murrizketa eta soldatadun pribatuen artean, berriz, % 2,6koa. Dena den, 2015eko bigarren hiruhilekoan erkidegoan landunak 267 mila direla adierazi da (UEEZ), oraindik ere 2008ko lehen hiruhileko maximoa baino % 10,9 gutxiago, hain zuzen.


Ildo horretatik, **langabezia-tasa 2 puntu portzentual jaitsi zen Nafarroan 2014an (% 15,7 batez beste). Baina Espainiakoarekiko alde 7,8 puntu portzentualeraino estutzen da 2015eko bigarren sei hilekoan** (ikus 3.23 grafikoa), Nafarroan langabezia % 16ra iritsi baita. Eta hori, biztanleria aktiboak behera eginda (-% 0,8 h/h batez beste 2015eko lehen sei hilekoan, Estatuan batez beste egonkortu egin delarik) eta jarduera-tasa murriztu arren: % 60tik behera kokatu da hiruhilekoan bortzgarrenez segidan eta, Espainian aldiz, % 60tik gora kokatu da 2015ean; horrek halako adoregabetasun bat islatuko luke.

3.22 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: okupazioaren hazkundera, eta ekarpena sektorez sektore (p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.23 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: langabezia-tasa (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEtik abiatuta

Egiaz, **Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) izena emandako langabeen kopuruari dagokionez, murrizketa handiagoa izan zen Nafarroan Espainian baino**, bai 2014an (-% 1,9 h/h vs -% 1,5) eta bai 2015eko lehen hiru hiruhilekoetan (-% 2,8 h/h UEEZ, eta Espainian, berriz, % 2,3 h/h).

Beraz, **lan-merkatuaren adierazleek berresten dute joera aldaketa** jarduera ekonomikoan, nahiz eta aldaketa hori **Nafarroan Espainian baino polikiago** gertatu; eta hori, hirugarren hiruhilekoko datuak espero baino txarxeagoak izan arren.

Aurrera egin behar du Nafarroak langabeen enplegagarritasunean, krisitik ateratzeko unea bizkortu nahi badu

Ekonomia-egitura antzekoetan eta lege-esparru komun batean dagokionari helduta, Nafarroako lan-merkatuak desberdintasun gutxi ditu Espainiako esparru orokorrarekiko, bai dinamismo ekonomikoaren garaian eta bai krisia sakonagoa izan denean ere. Hala ere, datuak zehatz aztertuz gero, eskualdeak baditu zenbait berezitasun, zailtasun jakin batzuk adierazteko egokiak izan daitezkeenak eta, ildo horretatik, Nafarroako errealitateari egokিতuta zuzentzeko mekanismoak planteatzeko balio dezaketenak. Horrelako analisietan aurrera egin ahal izateko, Biztanleria Aktiboaren Fluxuei buruzko estatistika erkidegoz erkidego xehetasunez argitaratzen hasi zen duela gutxi Estatistikako Institutu Nazionala, hiruhilekoz hiruhileko. 2005eko bigarren hiruhilekotik 2015eko bigarren hiruhilekora argitaratu diren serie horiek **autonomia-erkidego bakoitzean lan-merkatuan egoera batetik bestera izan diren trantsizioen berri** ematen dute.

3.1 koadroak Nafarroan eta Espainian izan diren emaitza nagusiak erakusten ditu, hiru aldi bereiziz: krisia etorri aurretik enplegua hazi zen azken hiruhilekora arteko hedapen-aldia; (2H05-1H08), enpleguak behera egin zuen aldia (2H08-2H13), eta enplegua suspertzen hasi zen lehen hiruhilekotik gaur egunera arteko aldia (3H13-2H15). Honako puntu hauek laburbiltzen dituzte landunen ataleko emaitza nagusiak, urtarokotasun-datuak zuzendu ondoren:

- **Egungo hiruhilekoan landuna den norbait aurreko hiruhilekoan ere landuna izateko, langabea izateko edo ez-aktiboa izateko aukerak nahiko egonkorak dira Nafarroan, % 94 ingurukoak. Are handiagoak Nafarroan Espainian baino (+1,5 p.p. batez beste), aintzat hartu diren hiru aldietan: krisi aurretik, krisi garaian eta suspertze-aldian.**
- Hala ere, **krisi garaia ondoren, landun bat aurretik langabe egoteko probabilitatea handitzen joan da pixkana** bai Nafarroan (% 2,4tik % 4,2ra) eta bai Espainian (% 3,3tik % 5,4ra). Gainera, probabilitate hori 1 p.p. inguru handiagoa da Espainian Nafarroan baino.
- Horrez gain, **landun bat ez-aktibo egoeratik etortzeko probabilitatea pixkana murriztu egin zen** Nafarroan eta Espainian (hurrenez hurren % 3,5 eta % 3,9tik hasita), eta **susperraldian ia % 2 inguruan parekatu zen, nola batean hala bestean.**
- Bestalde, **honako hiruhilekoan langabe dagoen bat aurrekoan ere langabe egoteko aukera handitu egin da nabarmen bi eremuotan. Zehazki, Nafarroan % 66tik gorakoa da aukera hori** (% 70ekoa Espainian) krisi osteko garaian eta, enpleguaren hazkunde garaiarekin alderatuta, 32 p.p. eta 29 p.p. hazi da hurrenez hurren. Dena den, 2013ko lehen hiruhilekotik (eskualdean langabe kopuru handiena garai horri dagokio) langabezia erregistratua % 17 murriztu da Nafarroan, eta % 14 Espainian.
- **Langabe bat aurreko hiruhilekoan landuna izateko aukera murrizten joan da % 34tik (Espainian % 29) ia erdira, gaur egun.** Antzera, **langabe bat aurreko egoeran ez-aktibo izateko aukera murriztu egin da, kasu honetan ere ia erdira:** krisi aurretik, langabeen ia herena aurreko hiruhilekoan ez-aktibo ziren, eta krisi egoeran eta suspertze aldian, proportzio hori % 19tik behera jaitsi da.

Beraz, 2005etik 2008ra bitarteko garaian lan-merkatuaren dinamismoak jardueraren suspertzea eragiten bazuen ere (horietako asko landunen artera iragaten ziren zuzenean), gerta daiteke gaur egun adoregabetasunak jardueraren susperraldi hori mugatzea, neurri batean. Egiaz, **hedapen-aldian Nafarroako langabeen herena soilik zegoen langabe aurreko hiruhilekoan (beste heren bat landunen artetik zetorren, eta beste herena ez-aktiboen esparrutik); gaur egun, berriz, langabeen bi heren langabe zeuden aurreko hiruhilekoan ere.**

3.1 koadroa

Landun eta langabe bihurtzeko probabilitateak, aurreko hiruhilekoko lan-egoeraren arabera (batez beste, UEEZ, %)

Egungo egoera	Aurreko egoera	2H05-1H08		2H08-2H13		3H13-2H15	
		Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Landuna	Landuna	94,1	92,8	94,6	92,9	93,9	92,5
	Langabea	2,4	3,3	3,1	4,5	4,2	5,4
	Ez-aktiboa	3,5	3,9	2,3	2,5	1,9	2,1
Langabea	Landuna	34,2	28,8	22,3	19,0	16,7	13,9
	Langabea	34,3	41,3	58,8	63,2	66,1	70,8
	Ez-aktiboa	31,5	29,9	18,9	17,8	17,2	15,3

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Laburbilduz, nahiko argia da fluxuen azterketa: **enpleguari eusteko aukerak zertxobait handiagoak dira Nafarroan oro har Espainian baino, eta langabeen egoeratik landunen egoerara iragateko aukerak zertxobait txikiagoak dira.** Fluxuak langabeziaren ikuspegitik aztertuta ere, aurrez landun edo ez-aktibo egoteko aukerak Espainian baino zertxobait handiagoak direla ikusten da, eta, beraz, aurrez langabe egoteko aukerak txixixeagoak dira; beraz, langabe irauteko aukerak zertxobait txikiagoak dira eskualdean.

Nafarroan 2007tik lanik gabe bi urte edo gehiago daramatzaten langabeen ehunekoa ia 25 puntu hazi bada ere, luzaroko langabeen ehunekoa txikiagoa izan da Nafarroan Espainian baino egiazki, 3 puntu txikiagoa 2007an eta 8 puntu txikiagoa azken urtean. Nafarroan, 2015eko bigarren hiruhilekoko langabeen % 37k bi urtetik gora daramatzate egoera horretan, eta Estatuko batez bestekoa baino 7,8 puntu gehiago da hori, beraz. Ildo horretatik, **funtsezkoa da enplegu-politika aktiboetan autonomia-gobernuen jarduera-ahalmenaz baliatzea** lan-merkatuaren arazoei irtenbidea lehenbailehen emateko, enplegarritasuna eta enpleguaren egonkortasuna sustatuko baititu horrek.


Nafarroa: zerbitzuak dinamizatu egin dira, eta industria-sektorea gainditu dute

Nafarroako BPG eskaintzaren aldetik aztertuta, argi ikusten da zerbitzuen sektoreko ekarpen gorakorra, batez ere merkatu-zerbitzuena, izan dela azken urte eta erdian sumatu den hazkundearen oinarria; eta oreka ekarri dio horrek, neurri batean, industriari 2015ean aurreko urtean baino hazkunde txikiagoa izateari, eraikuntzaren sektorearen doitze-lanen amaierak bultzatuta (ikusi 3.24 grafikoa).

Sektoreka, 2014ko lehen hiru hiruhilekoen ezaugarri izan da Nafarroako industria-sektorean sumatu dinamismoa: industria-produkzioaren indizea (IPI) % 5,7 hazi zen (u/u), Espainiakoa % 1,5 izan bazen ere, eta hazkundera bultzatu zuen nabarmen, atal honen sarreran adierazi denez. Hala ere, 2015eko lehen hiru hiruhilekoei erreparatuta, industria-produkzioaren indizearen hazkundera txikiagoa izan dela adierazten dute (% 2,4 u/u, eta % 3,2 u/u Espainian). Aldiz, zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea (ZSJI) -% 3,5 hazi zen u/u Nafarroan 2014an- % 3,8 inguru (u/u) haz daiteke aurtengo lehen hiru hiruhilekoetan eta, beraz, Estatuko batez bestekoarekiko aldea estutuko litzateke (ikusi 3.25 grafikoa).

3.24 grafikoa


Nafarroako BPG eta hazkunderi egindako ekarpena, eskaintzaren atalean (% u/u. Zikloa eta joera)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.25 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: IPI eta ZSJI (1H12=100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2015-2016rako agertokia: 2015eko lehen seihilekoan baino dinamismo txikiagoa izan arren, lau faktorek eutsiko diote eskualdearen hazkunderi

Atal honen sarreran aurreratu dugunez, agertoki makroekonomikoan txertatutako berrikuntzek eta 2014an barne-eskaerak erakutsitako inertzia Nafarroako ekonomiaren hazkunde-aurreikuspenak gorantz berrikustea ekarri dute. Nahiz eta **aurreikuspenen epean hazkundera iraunkorra izango dela iragar daitekeen**, oraingo hiruhilekoko datuek halako motelaldi bat erakusten dute, eta, itxura batean, sendotu egingo litzateke joera hori hurrengo hilabeteetan. Zehazki, **BPGren hazkundera % 3,2 ingurukoa izatea espero da 2015ean, eta % 2,8 inguruan eutsiko dio 2016an**. Erritmo horrek **biurtekoan 13 mila lanpostu inguru sortzea ekarriko luke**, eta langabezia-tasa % 10,4 ingurura murriz daiteke 2016. urtearen amaieran.

Kanpoko nahiz barneko elementuak izango dira jardueraren hedapenaren euskarriak. Petrolioaren prezioaren beherakadak, euroaren depreziatioak eta ekonomia globalaren eta, bereziki, Europako ekonomiaren azkartzeak Nafarroako kanpo-sektorearen dinamismoa sustatzen jarraituko dute. Halaber, politika monetario hedakorrek eskaria handitzea sustatuko du. Espainian, oinarritukoak hobetzea, desoreken zuzenketan aurrera egitea eta zerga-politikak murriztaile izateari utzi izana lagungarri izango dira hurrengo hiruhilekoetan barne-eskariari eusteko.

Dena den, aurtengo bigarren seihilekoan jarduera apur bat mantsotuko da, aurrez adierazitako faktore horietako batzuen bulkada ez baita hainbertzekoa izanen, ziurgabetasun politikoak eragina izan baitezake kontsumoaren eta inbertsioen arloetan familiek eta enpresek hartuko dituzten erabakietan. Gainera, zenbait arrisku egikaritu dira, mundu-ekonomian bereziki, eta horrek esportazioen hazkundera geldiaraz dezake.


i) Petrolioaren prezioaren beherakadak hobetu egin du familiek eskura duten errenta, eta ekoizpen-kostuak murriztuko ditu

2014ko uda amaieratik, behera egin du nabarmen petrolioaren prezioak (ikus 3.26 grafikoa). Hainbat faktorek erraztu dute prezio zuzenketa, 2014. urtearen bigarren zatian hasi eta, egun ere, maila baxuan egotea. Besteak beste, arrazoi hauek aipatu behar dira: petrolioaren eskaintza globala handitzea eta, bereziki, AEBn hidrokarbu ez konbentzionalak ekoiztea (*shale oil*), LPEEk ekoizpen-kuotak ez murrizteko

hartutako erabakia (Saudi Arabiaren babesarekin, nagusiki), prezioetan presioa jasan arren, Iranekin lortutako akordioa eta, azkenik, tentsio geopolitikoek ekoizpenaren gain duten eragin txikia, esate baterako Libian. Nafarroako eta Espainiako ekonomien mendekotasun energetikoa handia dela kontuan hartuta, eskaintza-shockak eragin garbi positiboa izango du jardueran, familiek eskura duten errenta handitu eta enpresen garraio- eta ekoizpen-kostuak murriztuko dituzenez; horrela, kontsumoa, inbertsioa eta merkataritza-fluxuak bultzatuko dira. Zehazki, **BBVA Research-en estimazioen arabera, petrolioaren prezioaren beherakadak 1,3 p.p.-tan susta dezake Nafarroako jarduera** (ikusi 3.27 grafikoa).

3.26 grafikoa


Petrolioaren prezioen agertokia (Brent upeleko US\$)



Iturria: BBVA Research, Bloomberg-en oinarrituta

3.27 grafikoa

Petrolioaren prezioak lau hiruhilekotan % 40 behera egiteak BPGn izan dezakeen eragina, eta esportazioek BPGn duten pisua



Iturria: BBVA Research

ii) Moneta politikak hedakorra izaten jarraituko du

Finantza-merkatuek udan izan duten ezegonkortasuna, Europako ekonomiaren suspertze ahula eta inflazio-tasa txikiak ikusita, EBZk irmo jokatu du berriro ere. Zehazki, erakunde horretako Gobernu Kontseiluak argi adierazi zuen bere azken bileran prest zegoela aktiboak erosteko programa malgutzeko, beharrezko ikusiz gero; programa hori hedatzera zihoala adierazi zuen urtarrilean¹¹, eta Europako gobernu, agentzia eta erakundeek jaulkitako balio publikoak hartzen ditu barnean programa horrek. Oro har, gutxienez 1,1 bilioi euroko likidezia injektatzea dakar programa horrek (60.000 milioi euroko erosketak hilero) joan den martxotik 2016ko irailera bitartean, gutxienez (edo EBZren ustez inflazioak bere xedea lortzeko bidea berreskuratu duela erabaki arte, hots, % 2ren inguruko tasatik hurbil, baina horren azpitik)¹². Neurri horiek eta, horiekin batera, interes-tasa nagusiari minimo historikoan eustea (% 0,05) nahiz epe luzean finantzatzeko eragiketa-programa (TLTRO) **politika monetarioko tresna egokiak dira inflazio baxuari aurka egiteko eta epe luzeko interes-tasei maila baxuan eusteko** (% 2,1ean 2015-2016 biurtekoan Espainian, 2014an baino % 0,5 gutxiago)¹³.

Are gehiago, **EBZk abian jarritako pizgarri guztiek eragin positiboa izango lukete kreditu berriak emateko orduan.** Izan ere, eragiketa berrien hazkundera bateragarria litzateke saldo bizien beharrezko

11: 2014ko bigarren seihilekotik indarrean dauden programak ere hartzen ditu barnean (CBPP eta ABSPP): aktiboen babesaren balioak (ABS da ingelesezko sigla) eta bermatutako bonuak erostea; gaur egun, gutxi gorabehera 13.000 milioi euro dira hilean.

12: Zehaztasun gehiago izateko, ikusi BBVA-Research argitalpenaren EBZren Behatokia, 2015eko urtarrilaren 22an argitaratutakoa. Hemen: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2015/01/Observatorio_BCE_01151.pdf

13: *Situación España* aldizkariko 3. errekoadroan, 4H14ri dagokionean, TLTRO eta horrelako ekintzek 0,2 eta 0,8 artean susta dezaketela Espainiako BPGren hazkundera ageri da, epe laburrean bada ere. Ikusi: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/11/Situacion-Espana_4T14-web.pdf


gainzorgabetzearekin, irteera-fluxua (amortizazioak) sarrera-fluxua (eragiketa berriak) baino handiagoa bada.

Azkenik, aktiboak erosteko prozesua lagungarri da finantza-tentsioen adierazleei egonkor eusteko; adierazle horiek lotura estua erakutsi dute iraganean MICA-BBVA ereduak Nafarroarako estimatutako eskualde-jardueraren hazkundearekin (ikusi 3.28 grafikoa). Dena den, **Espainiako arrisku-sariaren handitze diferentzialak**, neurri batean ziurgabetasun politikoak eragina eta, **kontrako haize batzuk**, ekonomiaren bilakaeran eragin dezakete aurtengo bigarren seihilekoan. Adibidez, nazioartearen testuinguruan arriskuak handitu egin direla eta horiek Nafarroaren ekonomian eragina izan dezaketela ikusi da; esate baterako, garatutako ekonomien nahiz garatze-bidean direnen (Txina, bereziki) hazkunde-espektatibak beherantz berrikusi behar izan dira; jarduera globala gutxitzeak zenbait ekonomiatan (batez ere Estatu Batuetan) interes-tasen igoerak atzeratu beharra ekar dezakete; eta, hortaz, aldakortasuna areagotu da finantza-merkatuetan (Greziako krisiak ere lagundu du horretan). Faktore horien ondorioz, euroaren kanbio-tasak udaberriari iragarritakoa baino depreziatio txikiagoa izan duela azpimarra daiteke, EDBn aurreikusitakoa baino ahulagoa izan da hazkundera, eta Espainiako arrisku-sariak ere gora egin du pixka bat; orotara, merkataritzako eta inbertsioetako fluxuen aurrerapena amini bat muga dezakete horiek guztiek. Dena den, **BBVA Research-en kalkuluetan dolarrarekiko euroak izan depreziatioak (% 20 2014ko balioarekiko) Nafarroako ekonomia 0,9 p.p. susta dezake 2015ean**, esportatutako ondasun eta zerbitzuen prezio-lehiakortasuna handitu eta inportazioak ordezkatzeko prozesua sustatzearen ondorioz.

iii) Garatutako ekonomiek hazten jarraituko dute


Kanpo-sektoreari dagokionez, aldeko haize batzuek neurriari ekarri dute horien sustapena (mundu-mailako hazkundera, arrisku-saria, kanbio-tasa), baina inguruak lagundu egingo du esportazioen gorakadan. Adibidez, Eurogunean BPGren aurreikuspena beherantzko joera hartuta berrikusi beharra izan bada ere, jarduera bizkortu egingo dela aurreikusten da, hurrengo urtean % 2ko hazkundera iritsi arte. **EDBren hazkundera puntu erdi gora egiteak ia beste horrenbesteko gorakada ekarriko lioke Nafarroakoari** (ikusi 3.29 grafikoa).

3.28 grafikoa
BBVAren Finantza Tentsioen Indizea (FTI) eta Nafarroako BPGren hazkundera (MICA -Nafarroa)



Iturria: BBVA Research. 3T15ko estimazioak hiru hilekoari dagokion informazioaren bi heren hartzen ditu.

3.29 grafikoa
BPGn izan dezakeen eragina, EDBn hazkundera ekonomikoaren % 0,4ko berrikuspena egin den lau hiru hilekoren ostean



Iturria: BBVA Research

iv) Barne-eskariak indartsu eutsiko dio

Hainbat faktore daude eskualdeko kontsumoaren eta inbertsioen dinamismoaren atzean. Horien artean honakoak nabarmentzen dira: presio inflazionistatik ez izatea, interes-tasek historikoki izandako maila baxuenei eusteko espektatiba, konfiantza berreskuratu izana eta aurrezkiaren doikuntza, familiek eskura duten errenta erreala berreskuratu izana –enplegua sortzearekin, petrolioaren prezioaren jaitsierarekin eta PFEZen murrizketarekin lotuta– eta enpresa, familia eta sektore publikoaren finantzaketa-baldintzak hobetu izana. Bestelako bulkada gehigarriak espero ez bada ere, faktore horiek guztiak duela urtebete baino egoera hobean daude eta, beraz, barne-eskariaren indarraldiaren euskarri dira.

Zerga-politikari dagokionez, eta gobernu zentralarekin BEZaren inguruan sortutako desadostasunak konpondu ondoren, Nafarroak bere lehen gastuaren atala kontsolidatzen jarraitu beharko du, defizit-helburuak betetzeko abiatutako bideari eusteko. Ez da espero epe laburrean zerga-politika uzkuertzerik.


Higiezin sektorean, berriz, hainbat urteko uzkuertzearen ondoren eta gehiegizko eskaintzarik ez denez, espero izatekoa da Nafarroako ekonomiaren hazkundea lagungarri gertatuko dela **etxebizitzaren eskaria pixkana handitzeko**, barne-eskaria eta enplegua hobetzea lagun hartuta, betiere.

Laburbilduz, faktore horiek guztiek BPGren % 3,2ko igoera ekarriko dute 2015ean, eta % 2,8koa 2016an; 13 mila enplegu sortzea bultzatuko du horrek gainera

Ekonomian espero den dinamismoaren ondorioz, lan-merkatua poliki-poliki suspertzen joango da, eta, sektore pribatuko okupazioa handitzen laguntzeaz gain, langabezia-tasa murrizten ere lagunduko du¹⁴.


Oro har, 2015-2016 biurtekoan, landunen kopurua urtero % 1,6 inguru handitzea espero da; hau da, 13 mila lanpostu inguru sortuko dira erkidegoan, nahiz eta 2007an lortutako enplegu-mailaren azpitik geldituko den oraindik ere, 22 mila enplegu gutxiagorekin (ikusi 3.30 grafikoa).

3.30 grafikoa
Nafarroa: landunak, BAI (milakotan)



(a): aurreikuspena. Epe amaierako datuak.
Iturria: BBVA Research, BAI-EPAn oinarrituta

3.31 grafikoa
Txinara esportatutako ondasunen zenbatekoa (%)



Iturria: BBVA Research, Datacomex eta Eurostaten oinarrituta

14: Espainiako lan-merkatua aldatzeko proposamen bat, enpleguaren sorrera azkartzen eta dualtasuna murrizten lagunduko lukeena, irakur daiteke *Situación España* aldizkarian, 2015eko lehen hiruhilekoari dagokionean, 1. errekoadroan; hemen: https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-web_vf.pdf

Agertokiak ildo beretik jarraituko du 2016ra begira, nahiz eta arrisku batzuk areagotu

Kanpora begira, ziurgabetasun geopolitikoek, petrolioaren beherakada handiak eta EBZren eta FEDn arteko politika monetarioen dibergentziek, bai eta garatutako herrialdeetan eta goraka ari direnetan (Txina, bereziki) hazkundera beherantz berrikusi beharrak ere **finantza-tentsio gehigarriak eragin ditzakete**, eskualdeko BPGren bilakaera kaltetuz.

Europar, EBZk hartutako neurriek ondorio txar bat izan dezakete, hau da, **finantza-zatiketa murrizteko prozesua motel dezakete**, arriskuaren mutualizazio osoa kontuan hartu ez dutelako. Horrez gain, **Espainiak bere ingurune politikoa eta elektoralak sortutako ziurgabetasunari egin beharko dio aurre. Hazkunde iraunkorra lortu eta kontsolidazio fiskala jarraitzea da erronka, hori ahalbidetuko duten erreformak egiten jarraituz.** Jardueraren hobekuntzarekin batera, enplegu asko sortu behar dira suspertzea gizarte osora irits dadin eta **bateragarri izan behar du horrek kontu korrante balantzan saldo positiboak lortzearekin.**

Nafarroan, ziurgabetasun handienak, alde batetik, automobilgintza sektorearen jarduerarako funtsezko diren inbertsio batzuk ez egiteko arriskuarekin daude lotuta. Eta, bestetik, barne-eskariaren bidez hazkundera eusteko gaitasunarekin.**** Ildo horretan, beharrezkoa da zerga-kontsolidazio eta zorpetze autonomikoaren murrizke prozesuekin jarraitzeko hartu beharreko neurrien gaineko ziurgabetasuna gutxitzea. Bestetik, abian diren hauteskunde-prozesuekin lotutako ziurgabetasun politikoak halako arrisku bat adierazten dute ekonomiaren bizkortzerako, eta zailtasun gehigarri bat inbertsio eta kontsumoari eusteko.


Horrez gain, hurrengo hilabeteetan barne-eskarian sumatu den hazkunde indartsua moteldu daitekeela kontuan hartuta, esportazioen dibertsifikazio geografiko eta sektoriala areagotzen jarraitu behar du eskualdeak.**** Zehazki, ondo hartuak izango dira hazteko aukera handiagoak dituzten merkatuetara hedatzeko prozesuarekin jarraitzeko ahalegin guztiak. Dena den, gorabidean diren herrialde batzuetako jardueran sumatu den moteltzea eta uztailean esportazioen hazkundera murriztu dela ikusita, funtsezkoa izango da ekonomia garatuen ingurune hobeari eta, AEBren kasuan, dolarrarekiko euroak erakusten duen ahulezia erlatiboari probetxua ateratzea.

Epe erdian, eskualdeak zenbait erronka ditu aurrez aurre (ikusi 3.32 grafikoa). Zehazki, langabezia-tasa murriztu behar du, lanaren batez besteko produktibitatea areagotu behar du¹⁵, **jarduera-tasa handitu behar du¹⁶ (ikusi argitalpen honetako 2. errekoadroa), eta giza kapitala hobetu behar du.** Faktore horiek guztiak funtsezkoak dira diru-sarreraren ikuspegitik eskualdeak Europako ekonomia aberatsenekin parekatzeko aukera izan dezan. BBVA Researchen aurreikuspenak betez gero (ikusi 3.33 grafikoa), datorren urtearen amaierarako Nafarroako BPG per capita 2008an zuenaren antzeko mailan kokatuko da (ikusi 3.34 grafikoa).

15: 2015eko lehen hiruhilekoko *Situación España* aldizkariako 3. errekoadroan, Espainiako manufaktura-sektoreko enpresek azken hiru hamarkadetan izandako produktibitatearen bilakaera eta faktore erabakigarriak aztertu dira.


16: 2015eko lehen hiruhilekoko *Situación España* aldizkariako 2. errekoadroan ikus daitekeenez, Espainiako biztanlerian espero den zahartzeak zaildu egin du jarduera-tasa suspertzea, nahiz eta lan-merkatuan parte hartzeko norbanakoen joerak edo ziklo ekonomikoak hobera egin.

3.32 grafikoa
Nafarroa: egiturazko indarren radarra¹⁷




Iturria: BBVA Research

3.33 grafikoa
Nafarroa, Espainia eta EDB: BPGren hazkundea (% h/h)



(* Segidaren ondorengo puntua estimazioa da, hiruileko informazioaren bi herenekin egina.
Iturria: BBVA Research

3.34 grafikoa
Eskualdekako BPG per capita 2008an (Espainia=100) eta 2016an (A.E. bakoitzaren 2008ko BPGa=100)



Iturria: BBVA Research

17: Eskualdeko maximoaren eta minimoaren arteko aldea neurtzen du, 1 eta 0 kopuruetan normalizatuta, hurrenez hurren.

3.2 koadroa

Espainia: BPGren hazkudean AA. EE.ko. (%)

Autonomia Erkidegoa	2011	2012	2013	2014	2015(p)	2016(p)
Andaluzia	-0,7	-2,8	-1,1	1,3	3,0	2,7
Aragoi	-1,0	-3,8	-0,7	1,7	3,1	2,9
Asturias	-0,7	-3,5	-2,5	0,8	2,6	2,1
Balearrak	0,3	-0,5	-0,5	1,9	3,4	3,0
Kanariak	-0,4	-1,4	-0,4	2,2	3,4	3,0
Kantabria	-1,7	-1,7	-2,3	1,0	2,5	2,4
Gaztela eta Leon	0,2	-3,1	-1,8	1,4	2,7	2,8
Gaztela Mantxa	-0,5	-4,1	-0,9	1,2	3,3	2,9
Katalunia	-1,6	-1,9	-1,2	1,4	3,4	2,5
Extremadura	-0,9	-3,5	-1,0	2,2	3,4	2,9
Galizia	-1,7	-2,3	-0,9	0,5	2,4	2,9
Madril	0,6	-0,4	-1,6	1,0	3,4	3,1
Murtzia	-0,4	-2,1	-1,3	2,0	3,3	2,6
Nafarroa	0,6	-2,7	-1,1	2,0	3,2	2,8
EAE	-0,5	-1,5	-1,8	1,2	2,7	3,0
Errioxa	-1,3	-2,8	-1,4	2,5	3,5	3,2
Valentzia	-1,3	-2,9	-0,8	2,1	3,5	2,6
España	-0,6	-2,1	-1,2	1,4	3,2	2,7

Data: 2015eko iraila.

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta.

1. errekoadroa. Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, jarduera ekonomikoari buruzko BBVA inkestan oinarrituta. 2015eko hirugarren hiruhilekoa¹⁸

Ekain bukaeran egin zen 2015eko bigarren hiruhilekoari buruzko inkesta, eta bertan lortutako emaitzak bat datoz apirilean eta ekainean azkartzen jarraitu zuen ekonomiarekin. Aurreko hiruhilekoak baino apur bat positiboagoak dira datuak (ikus E.1.1 grafikoa), baina bai aurrekoan eta bai honetan ere ez dago jarduera ekonomikoaren beheranzko joera adierazten duen erantzunik ia, eta, beraz, segida historikoko emaitzarik onenak lortu dira.

Jarduerari buruzko erantzunen saldo garbia¹⁹ hobetu egin zen bigarren hiruhilekoan (+49 p.p., lehenengo hiruhilekoko +33 p.p.-ren aurrean)²⁰; hala, bada, hiru hiruhileko positibo kateatu dira (ikus E.1.1 koadroa). Beste horrenbeste gertatzen da hirugarren hiruhilekorako espektatibei dagokienez (% 57, aurreko hiruhilekoko % 45aren aurrean), segida historikoko punturik gorenera iritsi baitziren, saldo garbi positiboko bederatzi hiruhilekoren ondoren. Beraz, pentsa daiteke Nafarroako ekonomiaren hazkundeak dinamikasunari eutsiko diola uztaitetik irailera bitartean.

Hirugarren sektoreko adierazleek erakusten dute oraindik ere dinamismorik handiena eskualdean. Turismoaren (+58 p.p.-ko saldo garbi positiboa) eta zerbitzuen sektorearen (enpleguaren nahiz inbertsioaren aldetik) jokabide onak, argitalpen honen aurreko atalean adierazitakoaren ildotik, gehien balioetsitakoen artean kokatzen dituzte adierazle horiek. Bestalde, inkestari erantzun dioten gehienek egoera egonkor ikusten duten arren, **industriaren sektoreari dagozkion adierazleek hobekuntzarako joera positiboa erakusten dute:** enpleguak eta industria-

ekoizpenak 40 p.p.-ko saldo garbia gaintzen dute erantzunetan, eta industriako inbertsioak ere kokapen positiboa du, 30 p.p.-ren zertxobait azpitik.

Baikortasuna txikiagoa da esportazioei dagokienez: emaitzak positiboak dira oraindik, baina aurreko hiruhilekokoak baino pixka bat ezkorragoak. Inkestari erantzun diotenen % 75ek baino gehiagok egonkor ikusten ditu esportazioak, eta % 22ra jaitsi da esportazioak gora egiten ari direla uste dutenen ehunekoa. Hala, bada, lehenengo sektoreko inbertsioarekin batera, saldo garbi positibo txikiena duten inkestako erantzunen artean kokatzen dira.

Enpleguak eta eraikuntza berriak ere hobera egin dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta erantzun positiboan saldo garbiak % 30etik gorakoak dira. **Urte arteko terminoetan lortu dute hobekuntzarik nabarmenena,** 2014ko bigarren hiruhilekoak saldo negatiboak izatetik gaur egun saldo positiboak izatera igaro baitira, eta % 60 ingurura murriztu dira sektorean egonkortasuna ikusten dutenen kopurua. Dena den, sektoreko adierazle errealek argi islatzen dute azken urteetan jasan duen doikuntza handia.

Beraz, epe laburrera begira, hazkunde ekonomikoari eutsi egingo zaiola espero dezakegu, inkestaren emaitzen eta BPGren bilakaeraren arteko korrelazioa kontuan hartuta (ikus E.1.2 grafikoa); hala, inkesta jarduera ekonomikoaren iragarle ona dela berresten du horrek. Azken batean, **Nafarroan egindako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak dinamismoari eutsi egiten zaiola berretsi du, eta inguruan konfiantza hobetzen ari dela,**


18: 2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Research-ek Nafarroara hedatu zuen eskualdeen azterketa egiteko bere proiektu garrantzitsuenetako bat: bulegoen sarean ari diren enplegatuei zuzendutako inkestak. Zehazki, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta ekonomiak eskualdean izan duen bilakaerari eta epe laburreko ikuspegiari buruzko tresna eguneratu, errepikakor eta azkarra da. Inkestaren funtzionamenduari buruzko xehetasun gehiago jakiteko, ikusi Situación España "Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía". Situación España, 2014ko 2. hiruhilekoa. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana/>

19: Honela lortzen da muturreko erantzunen saldoa: jarduerak goranzko bilakaera izan zuela uste duten erabiltzaileen erantzunen ehunekoari beheranzko bilakaera izan zuela uste dutenen ehunekoa kenduta.

20: Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan bildutako datuak gordinak dira, eta urtarokotasunak nolabaiteko eragina izan dezake berrietan. Segida historiko nahiko luzerik ez dagoenez, ezinezkoa da urtarokotasunarekin eta egutegiarekin lotutako zuzenketak egitea.

zerbitzuen sektorearen laguntzari esker, batez ere. Joera horrek ziurgabetasunak ere erakusten ditu, hala nola inkestari erantzun diotenez esportazioei dagokienez erakutsi duten ikuspegi ezkorragoa (ikusi E.1.3 grafikoa). Bat dator hori BBVA Research-en agertokiarekin: barne-eskariaren sendotasunean oinarritutako hazkunde positiboa, kanpo-sektorearen eta, bereziki, sektore turistikoaren ekarpenen babesarekin eta zenbait ziurgabetasun geopolitikorekin.

E.1.3 grafikoa
Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan. Erantzun-saldok. Hautatutako aldagaiak.



Iturria: BBVA

E.1 koadroa

Jarduera ekonomikoari buruzko inkesta. Nafarroako emaitza orokorrak

(erantzunen %)	2015eko 3. hiruhilekoa			2015eko 2. hiruhilekoa			2014ko 3. hiruhilekoa		
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu
Jarduera ekonomikoa	49	51	0	33	67	0	41	57	1
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	57	43	0	49	49	2	49	50	1
Industria-ekoizpena	41	59	0	33	67	0	16	82	1
Eskari-zorroa	48	52	0	40	60	0	35	64	1
Stock maila	23	77	0	19	81	0	10	88	1
Lehen sektoreko inbertsioa	13	85	3	18	82	0	22	69	9
Industriako inbertsioa	28	72	0	13	87	0	13	75	12
Zerbitzuetako inbertsioa	53	47	0	30	70	0	30	68	1
Eraikuntza berriak	38	59	3	24	76	0	12	74	14
Industriako enplegua	43	57	0	33	67	0	26	59	15
Zerbitzuetako enplegua	51	49	0	25	75	0	46	43	11
Eraikuntzako enplegua	33	65	3	20	80	0	0	73	27
Prezioak	0	100	0	7	93	0	2	78	20
Salmentak	46	54	0	20	80	0	39	55	6
Turismoa	58	42	0	44	56	0	49	50	1
Esportazioak	22	78	0	24	76	0	32	67	1

(*)Muturreko erantzunen saldoa
Fuente: BBVA

2. errekoadroa. Jarduera-tasa Nafarroan: egiturazko erronka

Sarrera

Nafarroako jarduera-tasa²¹ 12 puntu handitu zen aurreko zikloaren hedapen-fasean, lan egiteko adinean zegoen populazioaren % 62 ingurura iritsiz 2008an. Aitzitik, ordutik parte-hartzea ia bi puntu txikitu da, % 60az azpitik kokatzeraino. Funtsezkoa da bilakaera horren atzean dauden faktoreak ezagutzea, izan ere, **enpleguarekin eta produktibitatearekin batera, laneko parte-hartzeak baldintzatzen du ekonomiaren hazkundearen ahalmena**²².

Testuinguru horretan aztertu da, **jarduera-tasaren zer zati dagokien egiturazko faktoreei eta zer zati koiuntura-aldaketei, hau da, faktore itzulgarriei**²³. Lehen horien artean, demografiaren eragina aztertu da (zehazki, biztanleriaren zahartzea hartu da kontuan), bai eta talde jakin batzuen lan-merkatuan parte-hartzeko joeraren bilakaera ere (emakumearen laneratzea kasu). Bigarren goen artean, behin-behineko faktoreek, ziklo ekonomikoak esaterako, jarduera-tasan sortzen dituzten gorabeherak aztertu dira.

Emaitzek adierazten dute, Nafarroan nahiz Espainian, egiturazko aldaketek agintzen dutela parte-hartze tasaren jokabidean. Lehenik, biztanleriaren zahartzeak bultzatzen du beherantz jarduera-tasa: *baby-boom* belaunaldiaren lehenengo norbanakoak parte-hartze altuko fasea uzten hasi dira, eta jaiotza-tasa txikiek ez dute adierazten biztanleriaren piramidearen oinarria zabalduko denik. Bigarrenik, biztanleriaren zenbait talderen parte-hartzeko joeran jokabide ziklikoa ikusten den arren (25 urtez beherakoen artean, nagusiki), horien ekarpena nahiko txikia da.

Errekoadroaren azken zatian, **Nafarroako ekonomiak jarduera-tasa handitzeko zer gaitasun duen ebaluatu da.** Horretarako, hainbat agertoki eraiki dira, Estatistikako Institutu

Nazionalak (INE) egindako biztanleria-proiektzioak abiapuntutzat hartuz, eta biztalaria-talde ezberdinen parte-hartze tasaren bilakaerari buruzko hipotesi exogenoak ezarriz.

Simulazioen emaitzek iradokitzen dute, aurreikuspen demografikoak aurka izanda, **Nafarroako jarduera-tasak ez duela gora egingo gazteek eta, batez ere, 54 urtez gorakoek lan-merkatuan parte-hartzeko joeran igoera esanguratsua gertatzen ez bada.**

Nafarroa: jarduera tasaren jaitsiera, 15 urtez jarrian hazkundea izan ostean

Nafarroako ekonomiaren jarduera-tasak etenik gabe egin zuen gora, 90 hamarkada hasieratik, 2008an ia % 62ra iritsi arte. Ordutik izandako beherakada, ia bi puntukoa, Espainiako gainerako eskualdeetan ere gertatu da²⁴, bai eta beste herrialde garatu batzuetan ere, Belgikan, Portugalen, Danimarkan eta AEBn²⁵, besteak beste.

Jarduera-tasaren dinamika ezberdina da biztanleria-taldean artean. E.2.1 grafikoan ikus daitekeenez, 25 urtetik 54 urtera arteko Nafarroako gizonen parte-hartzea apenas aldatu den azken lau hamarkadetan. Aitzitik, 70ko hamarkadaren erdialdetik, emakumearen lan-merkatutazteak, ia 50 puntuko igoera eragin du bere jarduera-tasan. Azkenik, gazteen eta zaharren parte-hartzeak kontrako bilakaera izan du. Hedapen-fasean gradualki gora egin ondoren, 25 urtetik beherakoen jarduera-tasa 10 puntu baino gehiago murriztu da krisia hasi zenetik, batez ere laneratzeko dituzten zailtasunen eta prestakuntza-etapa luzatzearen ondorioz. Kontrara, 54 urtetik gorakoek parte-hartzeak, 90eko hamarkadaren erdialdean hasitakoak, ez du ahitze-zeinurik agertzen.

21: Jarduera-tasa biztanleria aktiboaren eta 16 urtekoen eta hortik gorakoek arteko zatidura da.

22: Hernández de Cos, Izquierdo eta Urtasun-en (2011) arabera, jarduera-tasak Espainiako ekonomiak urtean izandako hazkunde-ahalmenari egindako ekarpena 6 hamarren ingurukoa izan da azken hedapen-fasean (2000-2007).


23: Informazio gehiago izateko, ikusi 2015eko lehen hiruhilekoari buruzko Situación España aldizkariko 2. errekoadroa. Hemen: https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-R2.pdf

24: Batazbestea, jarduera tasaren azken aldiko beherakada -1,2 puntu portzentualekoa (p.p.) izan da autonomi erkidegoetan. Txikiena -0,4p.p.-koa (Andaluzia), eta handiena -2,3 p.p.-koa (Balearrak).

25: Ikusi Bengali, Daly eta Valletta (2013), Executive Office of the President of the US (2014), edo Fujita (2014), besteak beste.


Biztanleria-talde bakoitzaren jarduera-tasen bilakaera diferentziala ez da Nafarroan gertatutako fenomeno soilik, autonomia-erkidego guztietan gauza bera ikusi baita. Gainera, datuek iradokitzen dutenez, talde bakoitzaren barneko joerak ere bat datoz. E.2.2 grafikoa ikus daitezkeenez, parte-hartze tasen barreiatzea txikia da eta, gazteen kasuan salbu, beheranzko joera du denboran.

E.2.1 grafikoa
Nafarroa: jarduera-tasa biztanleria-taldean arabera (%)



Datu atipikoak eta aldaketa metodologikoak zuzenduta
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

E.2.2 grafikoa
Jarduera-tasaren barreiatzea autonomia-erkidegoen artean eta biztanleria-taldean arabera (aldakuntza-koefizientea ehunekotan)



2005 aurreko aldaketa metodologikoak eta datu atipikoak zuzenduta
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Parte hartzeko joera edo konposizio-efektua?

E.2.1 grafikoa jasotako ebidentziak iradokitzen duenez, gazteen laneko parte-hartzearen beherakadak azaltzen du Nafarroan jarduera-tasa agregatuak azken garaioan agertu duen geldotasuna. Hala ere, arrazoi gehiago ere izan daitezke. Batez bestetik beherako parte-hartzea duten biztanleria-taldean pisua handitu izan balitz, ekonomiaren jarduera-tasak behera egingen luke, norbanako bakoitzaren aktibo izateko joera handitu arren. Horri deritzo 'konposizio-efektua'.

Bereizi nahi badugu jarduera-tasaren dinamikaren zein zati den talde bakoitzaren parte-hartzearen aldaketaren ondorio eta zein konposizio-efektuaren ondorio, *shift-share* analisia egin behar da. Honela adieraz daiteke jarduera-tasaren aldakuntza $t-j$ eta t urteen artean ($\Delta LFPR_t = LFPR_t - LFPR_{t-j}$):


$$\Delta LFPR_t = \sum_i \left[\underbrace{(LFPR_t^i - LFPR_{t-j}^i) p_t^i}_{\text{Parte-hartze efektua}} + \underbrace{(p_t^i - p_{t-j}^i) LFPR_{t-j}^i}_{\text{Konposizio-efektua}} \right]$$

non i biztanleria-taldea den (25 urtez beherakoak, 25 urtetik 54 urtera arteko gizon-emakumeak eta 54 urtetik gorakoak); eta p , lan egiteko adina duen biztanleriaren gain talde bakoitzak duen pisua.

E.2.3 grafikoa, berriz, Nafarroako jarduera-tasa agregatuaren hazkundearen deskonposizioa agertzen du, bosturtekotan. Arreta azken bosturtekoan jartzen badugu, ikus daiteke **jarduera-tasaren beheranzko presioa ez duela gazteen ekarpen negatiboak soilik azaltzen, baizik 54 urtetik beherakoel biztanlerian duten pisua murrizteak ere eragiten duela**. Lan-merkatuan parte hartzeko joera handiena duen taldea zahartu izanaren eragina are handiagoa izango zatekeen emakumeek eta, batez ere, 55 urtez gorakoek euren jarduera-tasa areagotzen jarraitu izan ez balute.

E.2.3 grafikoa

Nafarroa: jarduera-tasaren bost urteko aldakuntzari egindako ekarpenak (p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Jarduera-tasaren egiturazko deskonposizio bat

Aurreko ataleko emaitzek iradokitzen dute jarduera-tasa **egiturazko faktoreen eta behin-behineko faktoreen** mende dagoela eta, horien eragina, berbera izan daiteke eskualdeen artean, baina ez biztanleria-taldearen artean²⁶. Ideia hori berresteko, **behatu gabeko osagaien eredu bat** erabili da autonomia-erkidegoetarako eta 1976-2014 tarterako.²⁷

i biztanleria-taldearen jarduera-tasa *j*-garren eskualdean eta *t* hiruhilekoan ($LFPR_{i,j,t}$) honela adieraz daiteke:

$$LFPR_{i,j,t} = \alpha_{i,j} * TLS_{i,t} + \beta_{i,j} * C_{i,t} + (\mu + \vartheta)_{i,j,t},$$

non $\alpha_{i,j}$ eta $\beta_{i,j}$, hurrenez hurren, joeraren ($TLS_{i,t}$) eta zikloaren ($C_{i,t}$) eraginak diren; eragin horiek berberak dira autonomia-erkidego guztietan *i*-garren taldearentzat. Bestalde, $(\mu + \vartheta)_{i,j,t}$ osagai idiosinkratikoa da, eskualde bakoitzeko elementu bereziak biltzen dituena.

E.2.4-tik E.2.7-ra arteko grafikoen azterketa horretatik Nafarroarako ondorioztatzen diren emaitza nagusiak adierazten dituzte:

- **25 urtetik beherakoen jarduera-tasak joera beherakorra agertzen du, eta zikloa berbera da autonomia-erkidego guztietan.** Dena den, gazte nafarren parte-hartzeak agertzen du osagai idiosinkratiko bat ere, 2000. urtetik joera orokorrarekiko ia 3 puntuko batez besteko alde negatiboa azaltzen duena. Azkenik, osagai ziklikoak ez du ia gazteen jarduera-tasa baldintzatzen Nafarroan (ikusi E.2.4 grafikoa).
- **25 urtetik 54 urtera arteko emakumeen parte-hartzean joera komun positiboa ikusten da.** Dena den, **emakume nafarren jarduera-tasa joera komunaren gaintik dago sistematikoki**, osagai idiosinkratikoaren balio positiboak erakusten duenez. Alde hori ia 8 puntu murriztu da azken 8 urteotan, 2014an ia desagertzeraino. Osagai zikliko komun bat ere hauteman da, baina ez da esanguratsua (ikusi E.2.5 grafikoa).
- **25 urtetik 54 urtera arteko gizon nafarrek ez dute aldaketa nabarmenik jasan lan-merkatuan parte hartzeko joeran.** Beraz, joera orokorrarekiko diferentzial positiboari (2,5 p.p. batez beste) bere horretan eutsi diotela

26: Estatu Batuetako ekonomiaren kasuan, adibidez, parte-hartze tasaren jaitsieraren heren bat, gutxi gorabehera, itzulgarria da, narriadura ziklikoan jasota baitago (NMF, 2014).


27: Ereduari buruzko zehaztasun gehiago izateko, ikusi 2015eko lehen hiruhilekoari buruzko Situación España aldizkari 2. errekoadroa.

esan daiteke. Biztanleria talde honetan ez da ziklo komunik hauteman (ikusi E.2.6 grafikoa).

- **54 urtez gorakoek lan-merkatuan duten parte-hartzeko joera komun hazkorra hautematen da 90 hamarkadaren amaieratik²⁸** (ikusi E.2.7 grafikoa). Erretiroa hartzeko adinaren atzerapenak, eta kotizaziopeko pentsioa jasotzeko baldintzen araudian eman aldaketek, talde honen parte-hartzearen areagotzea azkartu dute. Azkenik, estimazioek adierazten dute ez dagoela osagai zikliko bakar bat eta faktore idiosinkratikoak apenas azaltzen duela puntu biko bilakaera, talde honen jardueraren tasan.

E.2.4 grafikoa


25 urtetik beherako gazteak: jardueraren deskonposizioa, zikloen eta joeren arabera



Iturria: BBVA Research

E.2.5 grafikoa


25 urtetik 54 urtera arteko emakumeak: jardueraren deskonposizioa, zikloen eta joeren arabera



Iturria: BBVA Research

E.2.6 grafikoa


25 urtetik 54 urtera arteko gizonak: jardueraren deskonposizioa, zikloen eta joeren arabera



Iturria: BBVA Research

28: Talde honen jardueraren estimazioetan ez da kontuan hartu Galizia. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 2015eko lehen seihilekoari buruzko Situación Galicia aldizkaria. Hemen: <https://goo.gl/4OH7kw>.

E.2.7 grafikoa
54 urtetik gorakoak: jarduera-tasaren deskonposizioa, zikloen eta joeren arabera




Iturria: BBVA Research

Lehengoratu al dezake Nafarroako ekonomiak parte-hartze tasaren geldialdia? Europa Iparraldeko herrialdeak paradigma gisa

Aurreko ataleko grafikoetan adierazitakoaren ildotik, **jarduera-tasen bilakaera Nafarroan egiturazko faktoreen ondorio da nagusiki**. Beraz, zaila izango da parte-hartzea krisiaren aurreko kopuruetara itzultzea automatikoki, ziklo ekonomikoaren aurreko hedapen-fasean behatutako jarduera-mailak berreskuratzen direnean.

Dena den, **ebidentzia enpirikoak adierazten du eskualdeko jarduera-tasak, Espainiakoak bezalaxe, hobera egiteko marjina baduela**. 25 urtetik 64 urtera arteko nafarrek erreferentzia-ekonomien antzeko parte-hartze kopuruak lortu dituzte –zenbait kasutan baita handiagoak ere– (ikusi E.2.8 grafikoa). Hala ere, 25 urtetik beharokoen eta 64 urtetik gorakoen jarduera-tasak EB-15en batez bestekoaren azpitik daude, AEBtik eta Europa Iparraldeko herrialdeetatik oso urrun.

E.2.8 grafikoa
Jarduera-tasa adin-tarteen arabera (2013, %)



Iturria: BBVA Research


Nafarroako jarduera-tasa agregatuak hurrengo urteetan zer-nolako bilakaera izan dezaken auresateko, parte-hartzearen sei agertoki eraiki dira (ikusi E.2.1 koadroa). INEren azken biztanleria-proiekzioak erabili dira²⁹ (2014-2064) biztanleria-atal bakoitzaren jarduera-tasa haztatzeko (ikusi E.2.9 grafikoa).

Lehenengo agertokian ('Nafarroa 2014'), eskualdeko parte-hartze tasek 2014ko mailai eutsi diete. Bigarrenengoan ('EB-15') eta hirugarrenengoan ('AEB'), 2029. urtean lortuko luke talde bakoitzak Europa edo Estatu Batuetakoen pareko jarduera-tasa. Laugarrenengoan ('AAEE Top 3') eta bosgarrenengoan ('Europa Iparraldeko herrialdeak'), talde bakoitzaren parte-hartzea bat letorke parte-hartze handieneko hiru autonomia erkidegoen batez bestekoarekin (Balearrak, Madril eta Katalunia), edo Europa Iparraldeko herrialdeetako batez bestekoarekin (Finlandia, Norvegia eta Suedia), hurrenez hurren. Azkenik, 'Agertokirik onena' ere landu da, eta, horretan, jarduera-tasek aurreko agertokietako gehieneko balioak lortuko lituzkete.

29: Hemen eskura daitezke: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/p278/p01/serie/&file=pcaxis>.

E.2.9 grafikoa


Nafarroa: biztanleria-piramideak. 2014. eta 2029. urteak



Iturria: BBVA Research

E.2.10 grafikoa

Nafarroa: jarduera-tasa agregatuaren proiektzioak (%)



Iturria: BBVA Research

E.2.1 koadroa

Jarduera-tasaren agertokiak 2029an. Konbergentzia-balioak

	25 urte azpikoak	25-54 urteko emakumeak	25-54 urteko gizonak	54 urtetik gorakoak
Nafarroa 2014	35,1	82,7	93,8	24,4
EB15	46,5	79,4	91,8	26,0
AEB	55,0	73,9	88,4	40,3
AAEE, top 3	45,4	85,3	94,5	26,3
Europako Iparraldeko herrialdeak	54,1	85,7	91,5	45,0
Agertokirik onena	55,0	85,7	94,5	45,0

Iturria: BBVA Research

Ondorioak

Nafarroako jarduera-tasak behera egin du azken urteotan ia bi hamarkadez hazkunde jarraia izan eta gero. Kezkagarria da hori ekonomikoki, laneko parte-hartzea baita hazkunde potentzialean eragiten duen faktoreetako bat.

Errekoadro honetan, Nafarroako jarduera-tasaren bilakaeraren atzean dauden arrazoiak aztertu dira. Emaitzek adierazten dutenez, **egiturazko faktoreek (biztanleria zahartzea eta prestakuntza-etapa luzatzea) gidatu dute parte-hartze tasaren azken aldiko bilakabidea.** Aitzitik, koiuntura-faktoreen aldeko ebidentzia gutxi dagoenez, **egoera nekez lehengoratuko da, nahiz ziklo ekonomikoak hobera egin.**

Azkenik, **Nafarroako ekonomiak bere jardueratan egiturazko hazkundera garatzeko duen ahalmena aztertu da errekoadroan.** Emaitzen arabera, demografia zahartzea espero denez, **laneko parte-hartzea ez da modu esanguratsuan handituko, gazteen eta, batez ere, 54 urtetik gorakoen taldean parte-hartze joeran igoera esanguratsua gertatzen ez bada bederen.** Horregatik, **lan-bizitza luzatzea**

E.2.10 grafikoa emaitzek adierazten dutenez, **Nafarroako ekonomiaren jarduera-tasa epe erdian handitu ahal izateko, gazteen eta, batez ere, zaharren lan-merkatuan parte hartzeko joerek AEBko edo Europa Iparraldeko herrialdeetako joeretara hurbildu beharko lukete.**

Egungo joerak aldatuko ez balira³⁰, biztanleriaren zahartzeak 7 puntuko jaitsiera eragingo luke jarduera-tasa agregatuan hurrengo 15 urteetan³¹. Biztanleria-talde bakoitzeko aktiboen ehunekoa lehen postuetan dauden autonomia-erkidegoetakoekin bat etorri gero, beherakada 4 puntutik gorakoa izango litzateke.

30: Agertoki honek ez ditu kontuan hartzen biztanleria-taldean jardueratan gerta daitezkeen aldaketak, eta, beraz, muturreko kasu bat balitz bezala hartu beharko litzateke. 54 urtetik gorako kolektibora jende gehiago heldu ahala, talde horren parte-hartze tasa ere handi daiteke

31: Erabilitako proiektzio demografikoekiko sendoak dira emaitzak. INEK 2001ean aurreikusitako agertoki demografikoa hautatzen bada –gaur egungoa baino baikorragoa zen–, emaitza kualitatiboak ez dira ia batere aldatzen

sustatuko duten politika oro positiboki balioetsi behar da.

Erreferentziak

BBVA Research (2015): "La caída reciente de la tasa de actividad en España: un desafío estructural", *Situación España. Primer trimestre de 2015*. Hemen:

https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-R2.pdf

Bengali, L., M. Daly eta R. Valletta (2013): "Will Labor Force Participation Bounce Back?", Federal Reserve Bank of San Francisco *Economic Letter*.

Doménech, R. eta J.R. García (2012): "Sobre la necesidad de prolongar la vida laboral en España" *Observatorio Económico*. BBVA Research. Hemen:

<https://www.bbvaresearch.com/publicaciones/sobre-la-necesidad-de-prolongar-la-vida-laboral-en-espana>

Executive Office of the President of the US (2014): "The Labor Force Participation Rate since 2007: Causes and Policy Implications". *Council of Economic Advisers*.

FMI (2014): "Recent US Labor Force Participation Dynamics: Reversible or not?", *IMF Country Report* 14/222.

Fujita, S. (2014): "On the Causes of Declines in the Labor Force Participation rate". Federal Reserve Bank of Philadelphia *Special Report*.

Hernández de Cos, P., M. Izquierdo eta A. Urtasun

(2011): "Una estimación del crecimiento potencial de la economía española". *Documentos Ocasionales* N° 1104. Banco de España.

Hemen:

<http://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/PublicacionesSeriadas/DocumentosOcasional/11/Fich/do1104.pdf>

4 Zer diote lurraldez lurraldeko kontuek? Nafarroaren kasua

Ángel de la Fuente - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2015eko iraila

1. Sarrera

Bada Espainiako debate politikoan behin eta berriro errepikatu den gai nagusi bat: gastu publikoak eta horiek finantzatzen dituzten zergak lurraldeetan banatzeak erakusten duten ekitatea. Gai horren inguruko eztabaida are sutuagoa eta mikatzagoa izan da Kataluniaren kasuan: gero eta jende gehiagok uste du autonomia-erkidego hori gaizki tratatu duela hamarkada askoan Administrazio Zentralak zergen atalean, eta ideia horrek leku garrantzitsua bete du independentismoak izan duen aurrerakadan. Horrenbesteko indarrarekin eta dramatismoarekin ez bada ere, gai hori Espainiako ia autonomia-erkidego guztietako eztabaida publikoetan sartu da. Horietan guztietan eta zergen arloan Estatuarekin dituzten harremanei lotuta, bidegabekotzat jotzen diren alderdietan jarri da arreta batez ere, edota tokiko ikuspegitik diskriminatzailetzat hartzen diren alderdietan, oinarri finko eta dokumentaturik izan gabe askotan.

Lurraldez Lurraldeko Kontu Publikoen Sistema berriak (LLKPS), Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak berriki onartutako sistema horrek, beharrezkoak diren datu guztiak eskaini nahi dizkio Espainiako iritzi publikoari, debate horri ondo informatuta heltzeko. Estatuaren kontu publikoen erradiografia zehatza eskaintzen du tresna estatistiko berri horrek, eta gastu eta diru-sarrera publikoen osagaiek lurraldez lurralde duten banaketaren arrazoizkotasuna eta zuzentasuna ebaluatzeko modua ematen du, kasu bakoitzean horiek horrela egiteko logikarekin bat etorrira, betiere.

De la Fuentek (2014) LLKPSren metodologia laburbiltzen du, berorren emaitza nagusiak aurkezten ditu 2005eko eta 2011ko ekitaldiei dagokienez, eta berorien inplikazio batzuk aztertzen ditu, kontu agregatueta zentratuta.³² Metodologiari buruzko sarrera labur honen ondoren, Nafarroako Foru Erkidegoaren egoeran zentratu da honako idatzi hau, 2005eko eta 2012ko aurrekontu-sailetan duen parte-hartzearen ikuspegitik.

2. LLKPSren metodologia

Lehenengo koadroak LLKPSren egitura laburbiltzen du gaingiroki. Administrazio zentral hipotetiko baten diru-sarrerak eta gastuak jasotzen ditu sistemak, herrialdeko zerga-baliabide guztiek hasiera batean izan beharko luketena gehituta eta, ondoren, berorien zati bat lurralde-administrazioetara bideratuta, bai transferentzien bidez eta bai zenbait zerga haiei lagaz. Beraz, bai udal-zergak eta bai autonomia-erkidegoei lagatako zergak edota haiekin itundutakoak diru-sarreraren atalean eta gastuen atalean, bietan, ageri dira, eta, azken kasu horretan, autonomia-erkidegoetako eta tokiko finantzaketari dagozkion sailetan sartzen dira. Ildo horretatik, sektore publikoaren ia diru-sarrera guztiak biltzen dira, eta, analisi horretan, lurralde-administrazioak beren eskumeneko zerbitzuak emateko dituzten baliabide agregatuen atalean ager daitezen lortzen da, eta ez gastuen atalean. LLKPSren ikuspegitik autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen finantzaketa osoa delako interesa duen aldagai bakarria egin da hori horrela; izan ere, horixe da administrazioek zerbitzuak emateko duten gaitasun globala mugatzen duena; beren autonomiaz baliatuz, gastuen eredu oso desberdinak hauta ditzakete horiek, lurraldeen arteko ekitatearen ikuspegitik inolako arazorik sorrarazi gabe.

32: Lan hori hemen aurki daiteke: <http://www.fedea.net/documentos-hacienda-autonomica/>. Lurraldez Lurraldeko Kontu Publikoen Sistemaren metodologiari eta berorren emaitzei buruz sakonkiago eztabaidatzeko, ikusi hau ere: de la Fuente, Barberán eta Uriel (2014).

4.1 koadroa

LLKPSren egitura orokorra**I. DIRU-SARRERAK****I1. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen zerga-sarrera homogeneoak**

I1.1. Zuzeneko zerga homogeneizatuak

I1.2. Zeharkako zerga homogeneizatuak

I2. Eskualdeen zerga-ahalegin handia eta zerga-beherapena Kanarrietan eta Ceuta-Melillan**I3. Udal-zergak****I4. Kotizazio sozialak****I5. Administrazio Zentralaren beste diru-sarrera batzuk**

I5.1. Tasak, prezio publikoak eta ondasun eta zerbitzuen salmentetako beste sarrera batzuk

I5.2. Beste finantza- eta ondare-sarrera batzuk

Sarrerak osotara, zerga-ahalegin bera eginda = I1 + I3 + I4 + I5**Diru-sarrerak osotara = I1 + I3 + I4 + I5 + I2****G. GASTUAK****G1. Administrazio orokorra eta ondasun eta zerbitzu publiko nazionalak****G2. Lurraldeei (berez) esleiri dakizkiekeen gastuak****G2.1 Finantzaketa autonomikoa**

Lurraldeen diru-sarrera homogeneoak

- Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eskumen berezietarako baliabideak*

+/- Beste eskumen atipiko batzuen ondorioz doikuntzak foru-erk. eta Ceuta eta Melillan*

= *Finantzaketa eskumen homogeneoetan eta zerga-ahalegin berean*

+ Eskualdeen zerga-ahalegin handia

= *Finantzaketa osoa eskumen homogeneoetan***G2.2. Tokiko finantzaketa****G2.3. Ekoizpenaren eta ingurumenaren arloko azpiegiturak****G2.4. Eskualdeei zuzendutako laguntzak****G2.5. Lurraldeei esleiri dakizkiekeen beste gastu batzuk: osasuna, hezkuntza, segurtasuna, kultura...****G3. Babes eta sustapen soziala****G4. Erregulazio eta sustapen ekonomikoa****G5. Zor publikoaren interesa****Gastua osotara = G1 + G2 + G3 + G4 + G5****Gastua osotara, zerga-ahalegin berean = Gastua osotara - eskualdeen zerga-ahalegin handia**

Oharra: (*) eskualdeetako finantzaketaren sailari erantzen zaizkion zenbaterakoak edota eskumen ez homogeneoak izateagatik zuzentzeko xedez bertatik kendu direnak beste gastu-sail batzuetara aldatu dira, edo beste sail batzuetatik datoz.

Iturria: A. de la Fuente

Diru-sarrerari dagokionez, Estatuak eta autonomia-erkidegoek nahiz foru-ogasunek zergen esparruan izandako diru-sarrera homogeneizatuak hartu dira abiapuntutzat; hau da, Espainia osoan zerga-eskala komuna aplikatuz administrazio horiek bilduko zutena kalkulatu da abiapuntu gisa. Sail horri, hala dagokionean, eskualdeen "zerga-ahalegin handia" erantsi zaio, eta autonomia-erkidegoek ezarritako zerga propioak eta haien esku lagatakoak igotzeko edo jaisteko duten zerga-ahalmen arauemaileaz bakoitzak egin duen erabileraren emaitza den bilketa diferentziala sartu dira bertan. Egindako ahalegin handiari dagokion sailean sartu dira (ikur negatiboarekin) Kanaria uharteek eta Ceuta eta Melillak beren zerga-erregimen bereziari esker dituzten zerga-beherapenak. Ondoren, udal-zergak, kotizazio sozialak eta Administrazio Zentralaren bestelako diru-sarrerak sartu dira (Estatua, erakunde autonomoak eta Gizarte Segurantzak), LLKPSn jasotzen den diru-sarrera publiko guztien agregatua osatzeko.

Gastu publikoaren osagaiak bakoitzaren funtsa den logikaren arabera balioesteko bidea erraztu asmoz, LLKPSk bost sail handi bereizten ditu gastuetan, eta horietako bakoitzak bere helburuak ditu, eta lurralde

bakoitzarekin era askotara erlazionatzen da. Sail horietatik lehenengoak (1. koadroko G1) *interes orokorra duten Estatuko ondasun eta zerbitzu publikoak* biltzen ditu, hau da, defentsa, kanpo-harremanak eta Estatuko goi-erakundeen funtzionamendu-gastuak, espainiar guztiei onura berak dakartzkienak, bakoitza non bizi den eta zerbitzu horien ekoizpen-unitateak fisikoki non kokatzen diren alde batera utzita. Hirugarren sailak (G3) *prestazio eta zerbitzu sozialen* ataleko gastuak biltzen ditu (pentsioak edota langabezia-sariak, adibidez). Izaera pertsonala duten sari eta laguntzak dira, gizabanakoen artean bana daitezkeen onurak adierazten dituztenak, eta, printzipioz, Estatuaren lurralde osoan ordaintzen edo jasotzen dira, irizpide uniformeetan oinarrituta eta herritar bakoitzaren egoera ekonomikoa eta pertsonala aintzat hartuta. Programen laugarren atalak (G4) *erregulazio eta sustapen ekonomikoaren* esparruko gastua biltzen du, enpresa eta sektoreei irizpide ekonomiko eta sektorialen arabera ematen zaizkien laguntzak ere barnean hartuta; eta bosgarren sailak (G5) Estatuaren *zor publikoaren interesak* jasotzen ditu.

Gastuen ataleko bigarren sailean (G2), LLKPSn *lurraldeei (berez) esleia dakizkiekeen gastuak* deritzen atala sartu da. Oro har, bizi diren tokiaren arabera herritarrek beren esku dituzten zerbitzu eta prestazioak finantzatzeko dituen atala dela esan daiteke. Tokiko eta autonomia-erkidegoetako administrazioen finantzaketa hemen sartzen da, bai eta eskualdeei zuzentzen zaizkien Estatuko eta Europako zenbait laguntza-programa, Administrazio Zentralak ekoizpen- eta garraio-azpiegituretan duen esku-hartzea, eta hezkuntzan, osasunean eta kontsumo kolektiboaren esparruko eta tokiko edo eskualde-izaerako beste ondasun eta zerbitzu publikoetan egindako gastua ere (hondar-izaerakoa askotan), hala nola herritarren segurtasunean edota kultura-ekipamenduetan egindakoei dagokiena. Oro har, tokian-tokian ekoitzi behar diren zerbitzuen finantzaketari dagozkio, hau da, askotan lurralde bateko biztanleen multzoak modu kolektiboan kontsumitzen dituen zerbitzuen finantzaketari. Ezaugarri horiek kontuan hartuta eta beste programa talde handi batzuetan gertatzen ez den bezala, autonomia-erkidegoetan biztanleko hautemandako batez besteko gastua (ziurrenik kostu-faktoreen ondorioz doituakoa) erreferentzia interesgarria da, berdintasun-logika bati erantzun behar liekeen lurraldez lurraldeko gastuen azpikategorien barnean, eta baliabide publikoak lurraldez lurralde banatzerakoan zer disfuntzio edo desoreka dauden abisu emateko balio dezakete. Nahiz eta, kasu batzuetan, hala nola lurraldeei zuzendutako laguntzetan, ez litzatekeen inola ere gastua berdinean banatzea espero behar, datu garrantzitsua da orain ere biztanleko kostua, eta, horregatik, esplizitu egitea komeni da; ildo horretatik, programaren ondorio diren onuren argitan balioetsi beharko da kasu bakoitza.

Eskualdeen finantzaketa eta eskumen atipikoen ondoriozko doikuntzak

Lurraldeei esleia dakizkiekeen gastuen barnean, arreta berezia jarri zaiola LLKPSn eskualdeen finantzaketako agregatu homogeen baten eraikuntzari (G2.1), eskumen homogeen kasuan eta zergetan ahalegin bera eginda; izan ere, eskualde guztien artean konparazio baliagarriak egiteko aukera ematen du, foru-lurraldeak ere barnean hartuta, nahiz eta horien artean alde nabarmenak izan eskumenei dagokienez. Agregatu horretara iristeko, ezinbestekoa da zenbait doikuntza egitea eskualdeen finantzaketako datu gordinetan, eta batez ere gastuetan zenbait sail lekuz aldatzea adierazten du horrek, goranzko edo beherazko izaeraz eskumen atipikoak dituzten autonomia-erkidegoen edo hirien kasuan. Adibidez, espetxe-erakundearen kudeaketa bereganatu duen autonomia-erkidego bakarra Katalunia denez, Estatuak ez du ezer gastatzen zerbitzu horretan Kataluniako lurraldean, baina baliabide batzuk bideratzen ditu Generalitatera eskumen horren kostua estaltzeko, eta autonomia-erkidegoen finantzaketaren sailean sartzen da gastu hori. Bai autonomia-erkidegoen atalean eta bai segurtasun eta justiziaren ataleko gastuen atalean horrek konparazioen arteko distortsioa eragin dezakeenez, beharrezkoa da Kataluniaren kasuan aipatutako transferentzia hori lehen sailetik kentzea eta bigarrenengoan eranstea, distortsio hori saihesteko; beraz, aurrekontuko bi agregatu zuzentzen dira horrela eskualde horretarako, eta, hasierakoak ez bezala, horiek inolako arazorik gabe erabil daitezke beste lurralde batzuetako datu homologoekin alderatzeko. Alderantziko egoera dugu Ceutan eta Melillan: Espainiako gainerako lurraldeetan lurralde-administrazioek

kudeatzen dituzten zerbitzu garrantzitsu batzuk Administrazio Zentralak ematen ditu zuzenean Ceutan eta Melillan, hala nola osasuna eta hezkuntza. Kasu horretan, Estatuako gastu garrantzitsu hori eskualdeen finantzaketaren atalera aldatu behar da, bai azken aldagai hori eta bai jatorrizko kontu-saila autonomia-erkidegoetarako kalkulatu direnekin alderatzeko modua izan dadin.

Foru-erkidegoen kasua

Foru-erkidegoen kasuan, lurralde-finantzaketa homogeneousatuaren kalkulua apur bat konplikatuagoa da araubide erkideko autonomia-erkidegoen kasuan baino. Foru-lurraldeetan, abiapuntutzat zuzenean foru-aldundiek bildutako kudeaketa zuzeneko tributu itunduetan jasotzen diren diru-sarrerak hartzen dira (ia guztiak, kotizazio sozialekoak salbu). Ondoren, BEZaren esparruko (barnean hartuta inportazioak zergapetzen dituena, bere osotasunean Estatuak biltzen duena) eta Zerga Berezien ataleko diru-sarreraren banaketa, foru-ogasunen eta Estatuakoaren artekoa, kasu bakoitzean zergapetutako kontsumoen banaketari egokitzeko egiten diren doikuntza teknikoak erantsi dira. Autonomia-erkidego bakoitzaren finantzaketa garbia lortzeko, aurreko kalkulu horretatik ateratzen den zenbatekoari foru-erkidegoek Estatuari egiten dizkieten transferentziak kentzen zaizkio; printzipioz, transferitu ez zaizkien eskumenen kostutik dagokien zenbatekoa estaltzeko egiten dituztenak; hau da, euskal *kupoa* eta Nafarroaren *ekarpena*. Puntu horretan, kontuan hartzen dira, Zerga Bereziak ituntzeko unean erabakitako konpentsazio finantzarioei lotuta, administrazioen artean egiten diren transferentziak ere.

Kalkulu horietatik ateratzen den zenbatekoari foru-lurraldeetan eskumen atipiko zenbaiti dagozkien kostuak kendu behar zaizkio. Esparru horretan, Euskadiren eta Nafarroaren egoera Kataluniakoaren antzekoa da, baina eskumen atipiko ugari dituzte, herrialdeko beste hainbat eskualdetan Estatuaren ardurapean daudenak. Besteak beste, zergen kudeaketa eta katastroa, udalen finantzaketa osatzen duten transferentziak, errepideen eraikuntza eta kontserbazioa, kotizazio gabeko pentsioak, ikasleei zuzendutako beka eta laguntzak, eta aurrekontuetan horrenbesteko garrantzirik ez duten beste asko. Kataluniaren kasuan, bada garrantzi berezia duen alderdi konplikatu bat: ez dago modu esplizituan egindako balioespen ofizialik eskumen horietako askotarako. Horrelako kasuetarako, bada prozedura bat, horrelakoak balioesteko erabiltzen dena: foru-erkidegoei kontzeptu horri lotutako gastuari dagokion fikzioso bolumen bat esleitzen zaio, eta, horretarako, horietako bakoitzean per capita gastua (barnean hartuta bai zuzenketa eta bai Estatuak egindako gastua, nulua ez bada) Espainiako gainerako lurraldeetan kontzeptu horretan den batez besteko per capita gastuarekin parekatzea hartzen da irizpidetzat. Gainera, zuzenketa dagokion zenbateko osoa foru-erkidegoei dagokien lurralde-finantzaketatik kendu egiten da, eta Estatuaren gastuari eransten zaio, dagokion kontzeptuari lotuta. Horrela, beste eskualde-gobernu batzuetan aurrekontu-kosturik ez duten jardura batzuk finantzatzeko kostua kenduta ageri da foru-erkidegoetarako kalkulaturako eskualde-finantzaketa zuzendua, Espainiako gainerako lurraldeetan ikusi den batez besteko balioaren arabera, betiere; eta jardura horiei autonomia-erkidegoan dagokien gastua beste atal batera aldatu da, kasu batzuetan Estatuak eta beste batzuetan autonomia-erkidegoek kudeatutako beste gastu batzuetan konparazio homogeneousoak egiteko aukera izan dadin.

Euskadiren kasuan, kalkulu horiek eginda lortzen den *eskualde-finantzaketaren* agregatua halako hibrido bat dela azpimarratu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa bera ez ezik, barnean hartzen baitu probintzietako foru-ogasunen baliabideen zati bat ere. Araubide erkidearen barneko diputazio izan balira eskura izango zituzten baliabideen estimazioa soilik esleitzen zaie diru-sarrera gisa foru-ogasun horiei LLKPSn, eta eskualde-finantzaketako agregatu artifizial batean sartzen da gainerako finantzaketa, hertsiki autonomia-erkidegoari dagokionarekin batera, eskumen homogeneousoen atalean; eta horren bertute nagusia araubide erkideko autonomia-erkidegoetarako kalkulaturako finantzaketarekin konparatzeko modua ematea da.

Diru-sarrerak eta gastu publikoa egozteko irizpideak


LLKPS osatzeko, behar-beharrezkoa da diru-sarreraren eta gastuen sailak Espainiako eskualdeen artean banatzea, barnean hartuta Ceuta eta Melilla ere, hamazazpi autonomia-erkidegoei erantsi beharreko lurralde bakar gehigarri modura. Literaturan, zeregin honetarako erabil daitezkeen metodologia ugari ageri dira; baina ikuspegi bakarra da egokia, kontuan hartzen badugu LLKPSren funtsezko helburua jarduketa publikoaren ondorio diren kostu eta etekinen banaketa zuzenari buruzko eztabaidaz informazioa ematea dela: *karga/irabazia* deritzona da, gastu publikoaren etekinen eta horiek finantzatzeko zerga-kargen banaketa geografikoan oinarritzen dena. Metodologia horren bidez, gastu publikoa onuradunak bizi diren lurraldeari esleitzen zaio, onuraduntzat ondasun, zerbitzu edo prestazio horien kontsumitzaile edo hartzaile diren herritarrek hartuta –eta ez berorien zuzeneko ekoizleak, gastu publikoaren berehalako hartzaile izan baitaitezke, egin duten lanaren edo tarteko ondasun edo zerbitzuen ekoizpenaren kontraprestazio modura, baina inoiz ez zerbitzu horien azken xede–. Ildo horretatik, zergetako diru-sarrerak eta kotizazio sozialak zergadunen bizileku diren autonomia-erkidegoei esleitzen zaizkie, horietatik baitira zerga bakoitzaren kargari eusten diotenak, nahiz eta ez izan nahitaez horiek lehen batean ordaintzen dituztenak eta nahiz eta zergapetu daitekeen egintza hori gertatu den lurraldetik desberdina izan daitekeen.

Beste azterlan batzuetan ez bezala (ikus, adibidez, *Generalitat de Catalunya*, 2014), LLKPSn muzin egin zaio *fluxu monetarioaren metodo* deritzonaren arabera diru-sarrerak eta gastuak modu alternatibo batean egozteari. Banaketa-irizpide horren erabilera, gastua gastu hori fisikoki gauzatu den tokian esleitzen diona, defendatzeko, esan izan da horixe dela biderik onena administrazio publikoen jarduketak lurraldeen jardura ekonomikoaren gainean duen eragina gertutik aztertzeko. Hala ere, lurraldez lurraldeko kontu berri hauek ekarri dituen eztabaida, banaketa orekatuari buruzko eztabaida hori, kontuan hartuta, bigarren mailakotzat hartu behar lirateke kasurik onenean ere gastu publikoak enpleguan eta jardura ekonomikoan izan ditzakeen zeharkako eraginak. Bestalde, fluxu monetarioaren metodoak efektu horiek egokiro biltzen dituelako ustea ere zalantzan jarri behar da; izan ere, kasu horretan, garrantzitsuena ez litzateke Administrazioaren gastua non kokatzen den –metodologia horretan datu hori erabiltzen baita–, baizik eta horrek erosten dituen ondasun eta zerbitzuak non ekoizten diren; eta, normalean, ez da jakiten hori.

3. Nafarroaren kasua


Atal honetan, Nafarroako Foru Erkidegoaren posizio erlatiboa aztertzen da, diru-sarreraren eta gastu publikoaren banaketan 2005eko eta 2012ko ekitaldietan berorri dagokion parte-hartzearekin ikuspegitik; biztanleko gastu eta diru-sarreraren indizeak erabili dira, Estatuko batez bestekoaren bidez normalizatuta, eta aldi bakoitzean berori 100ekin parekatu da. Gastuari dagokionez, Nafarroak biztanleko gastu publikoan duen maila Estatuko bataz bestekoaren oso goitik dago, eta gastuaren indize agregatua 123 inguruan kokatzen da 2005ean, eta 119,5 inguruan 2012an (ikus 1. grafikoa). Batez bestekoarekiko desbideratze gorakor hori gizarte babeseko gastuaren aldetik dator neurri batean (pentsioak batik bat), zertxobait batez bestekoaren gainetik kokatzen baita (106ko eta 109ko indizeak) eskualdean ordaindutako kotizazio sozialen batez besteko altuaren ondorioz (ikus 5. grafikoa ere) eta, neurri batean, erregulazio ekonomikoaren esparruko gastu handiaren eraginez; sail garrantzitsuena Europar Batasuneko nekazaritzako laguntzei dagokie.

4.1 grafikoa
Gastuaren indizea biztanleko, zerga-ahalegin berean. Nafarroa* Estatuko batez bestekoa = 100



(*) Lurraldeei egotz dakiekeen gastuan, eskualde-finantzaketa ere sartzen da, zerga-ahalegin berean kalkulatuta; hau da, Nafarroako foru-ogasunak itundutako zerga guztietan "batez besteko" zerga-eskala aplikatuko zutela eta erkidegoak ez zuela bestekoa zergarik sortuko pentsatuta
Iturria: A. de la Fuente

4.2 grafikoa
Lurraldeei egotz dakiekeen gastuaren indizea biztanleko eta haren osagaiak, zerga-ahalegin berean. Nafarroa. Estatuko batez bestekoa = 100



(*) Eskualdeen finantzaketa homogeneizatua zerga-ahalegin bera (ikus aurreko grafikoko oharra) eta eskumen homogeneousak hartuta kalkulatu da; hau da, kanpoan uzten da eskumen atipiko jakin batzuei lotutako finantzaketa, ez baitituzte erkidego guztiek beren egin.
Iturria: A. de la Fuente


Faktore horiek baino garrantzitsuagoa da *lurraldeei (berez) esleidi dakizkiekeen gastuak* izena eman diogun atalean Estatuko batez bestekoarekiko ageri den desbideratze gorakorra: aztertu diren bi ekitaldietan, biztanleko gastuaren indizea 141ekoa eta 135ekoa da, eta, gero ikusiko dugunez, Nafarroako Foru Gobernuak duen finantzaketa altuaren adierazgarri da hori.

2. grafikoa lurraldeei esleidi dakizkiekeen gastuetan bereizten diren osagaiak erakusten ditu. Batik bat errenta txikieneko eskualdeei zuzentzen zaizkien Estatuko eta Europako eskualde-laguntzak biltzen dituen sailean, batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da Nafarroa, errenta maila handia duenez hori espero izatekoa bazen ere. Azpiegiturako inbertsioei dagokienez, batez bestekoaren oso azpitik kokatzen dira horiek ere aipaturako urte horietan.

Lurraldeei esleidi dakizkiekeen bestelako gastuak saila 3. grafikoa xehatu da, eta zenbait osagai aztertu dira; horien artean daude osasunaren eta hezkuntzaren arloetan transferitu ez diren funtzioetarako Estatuaren hondar-gastua eta kulturaren, justizian eta herritarren segurtasunean eta etxebizitzan egindako gastua. Atal horren barnean, herritarren segurtasunean eta justizian Nafarroak izan duen gastu izugarria nabarmentzen da, eta osasunean Estatuaren sailak (murrizta) izan duen norabide zehatzik gabeko jokabidea ere azpimarratu behar da.

4.3 grafikoa

Lurraldeei eslei dakizkiekeen bestelako gastuen indizea biztanleko, eta haren osagaiak. Nafarroa. Estatuko batez bestekoa = 100




Iturria: A. de la Fuente

Azalduenez, Nafarroan lurraldeei eslei dakiekeen gastu handiaren iturri nagusia autonomia-erkidegoaren finantzaketa onarekin lotuta dago. Arlo horretan, biztanleko gastuaren indizea, eskumen homogeen eta zerga-ahalegin berean kalkulaturik, 177koa izan zen 2005ean, eta 168koa, berriz, 2012an, Estatuko batez bestekotzat 100 hartuta.

Kasu honetan, analisia berariaz ondo zorroztea komeni da; izan ere, autonomia-erkidego bat nahiko ondo edo gaizki finantzaturik dagoen zehazteko orduan, garrantzi handia dute, biztanleriaren neurriak ez ezik, biztanleria horrek adinen arabera duen egitura kontuan hartzeak edota beste ezaugarri geografiko batzuek ere (hedadura edo uhartetasuna); horrek eragin esanguratsua du autonomia-erkidegoen titulartasunaren pean dauden zerbitzuen hornidurako eskariaren edota kostu unitarioen gainean (hala nola osasunean eta hezkuntzan). Faktore horiek analisiaren barnean sartzeko, *biztanleria doitua* adierazlea kalkulatu da eskualdeen finantzaketaren sisteman, eta nahiko erraza da hori foru-erkidegoetara hedatzea ere. Ziurrenik, eskualdeen biztanleria gordinaren erreferentzia baino hobea eskaintzen digu, gainera, hemen interesatzen zaizkigun alderdiei dagokienez.

4.4 grafikoa

Eskualdeen finantzaketa, eskumen homogeen eta zerga-ahalegin berean. Nafarroa




Iturria: A. de la Fuente

4. grafikoak Nafarroak biztanleko duen finantzaketa konparatzen du biztanleko finantzaketa doituarekin eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen multzoan aldagai horrek duen batez bestekoarekin (hau da, guztiak Nafarroa eta Euskadi salbuespentzat hartuta). Biztanleria gordina erabili beharrean biztanleria doitu erabiltzean denean, Nafarroako finantzaketaren adierazlea lau puntutik bostera bitartean murrizten dela ikus daiteke, eta horrek adierazten du autonomia-erkidegoaren zerbitzuetan espero den kostua eskualdean Estatuko batez bestekoaren gainetik dagoela, neurri handi batean eskualdearen hedadura nahiko handia delako, eskualde horretako biztanleriarekin alderatuta. Dena den, behar-unitateko finantzaketaren atalean, Nafarroak egoera onuragarriagoa du araubide erkideko autonomia-erkidegoek baino, eta horixe ikusten da 4. grafikoa ageri diren azken bi zutabe multzoak konparatuta.

4.5 grafikoa

Diru-sarrera publikoak. Nafarroa



Iturria: A. de la Fuente

Azkenik, diru-sarrera publikoen arloan, Nafarroan batez bestekoaren gainetik kokatzen da tributu-karga (110 dagokio 2005ean, eta 108, berriz, 2012an), baina, bere errenta maila erlatiboa aintzat hartuz gero, handiagoa legokioke, berori 126koa bailitzateke 2005ean eta 123koa 2011n. Foru-ogasunek duten zerga-erregimen bereziari zor zaio, neurri batean, emaitza hori, zuzeneko zergen gainean duen ahalmen araugileaz baliatu baitira zerga-presioa araubide erkideko gainerako lurraldeetan den mailatik behera ezartzeko. 5. grafikoko ezkerreko lehen zutabe multzoa, Nafarroak zergetan egiaz lortu dituen diru-sarrerak islatzen dituen, bigarren multzoarekin alderatzean ikusten da nabarmen faktore horren garrantzia, Estatuko gainerako lurraldeetan aplikatutako araubidea autonomia-erkidegoan aplikatuz gero lortuko ziren diru-sarreraren estimazioa biltzen baitu bigarren multzo horrek, foru-lurralde ez direnetan ezartzen diren batez besteko zerga-eskalak erabilita.

4. Ondorioa

Gastu eta diru-sarrera publikoen banaketan, Nafarroaren egoeraren ezaugarri dira, alde batetik, lurralde-finantzaketaren arloan betetzen duen posizio onuragarria, eta, bestetik, Nafarroako errenta maila kontuan hartuta espero zitekeena baino zerga-presio txikiago izatea; itun-erregimenak zergetan dakarren autonomia handiaz baliatuta beheranzko joera hartzearen ondorio litzateke azken hori.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2014). "¿Qué nos dicen las nuevas Cuentas Territorializadas?" Estudios sobre Economía Española, 2014-13 zk., Fedea, Madril.

<http://www.fedea.net/documentos-hacienda-autonomica/>

de la Fuente, A., R. Barberán and E. Uriel (DBU, 2014). "Un sistema de cuentas públicas territorializadas para España: Metodología y resultados para 2011." Estudios sobre Economía Española, 2014-03 zk., FEDEA, Madril.

<http://documentos.fedea.net/pubs/eee/eee2014-03.pdf>

Generalitat de Catalunya (2014). Metodologia i càlcul de la balança fiscal de Catalunya amb el sector públic central l'any 2011. Departament d'Economia i Coneixement, Bartzelona.

http://economia.gencat.cat/web/.content/70_economia_sp_financament/arxius/estadistiques-informes/Monografia-BF-2011.pdf

5 Taulak

5.1 koadroa

Nafarroako ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

%	2014		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		Azken hilabetea
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	
Txikizkako salmentak	1,5%	0,9%	2,2%	3,3%	0,4%	0,8%	abu.-15
Matrikulazioak	18,5%	18,8%	29,0%	25,4%	5,3%	0,9%	abu.-15
ZSJI (IASS)	3,5%	2,7%	3,4%	4,0%	4,1%	0,3%	uzt.-15
Bidaiari egoiliarrek (1)	6,9%	5,0%	-0,5%	6,3%	5,6%	0,5%	abu.-15
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	7,5%	4,1%	1,4%	6,3%	8,5%	0,9%	abu.-15
IPI	5,2%	1,5%	1,6%	3,0%	0,6%	0,6%	uzt.-15
Etxebizitza bisatuak	-20,0%	1,4%	13,3%	27,3%	-2,3%	-2,8%	uzt.-15
Etxebizitza salerosketak	12,8%	2,6%	3,1%	10,1%	-16,6%	2,2%	uzt.-15
Esportazio Errealak (2)	8,0%	2,8%	3,0%	4,3%	-4,8%	0,4%	uzt.-15
Inportazioak	7,1%	7,7%	5,4%	7,2%	10,7%	0,3%	uzt.-15
Bidaiari Atzerritarrek (3)	7,3%	4,6%	9,6%	5,2%	36,3%	0,4%	abu.-15
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	9,7%	2,8%	8,3%	2,8%	39,5%	0,6%	abu.-15
Afiliazioa SSn	1,1%	1,6%	2,5%	3,2%	0,2%	0,2%	ira.-15
Langabezia Erregistratua	-7,3%	-5,6%	-8,7%	-7,4%	-1,5%	0,2%	ira.-15

(1) Espainiako Egoiliarrek (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarrek ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

5.2 koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak**(Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)**

	2012	2013	2014	2015 (a)	2016 (a)
BPG erreala	-0,8	-0,3	0,9	1,5	1,9
Kontsumo pribatua	-1,3	-0,6	1,0	1,7	1,7
Kontsumo publikoa	-0,1	0,2	0,6	0,8	0,8
Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	-3,5	-2,3	1,2	1,9	3,9
Izakinak (hazkunderako ekarpena)	-0,7	0,0	-0,1	0,0	0,0
Barne eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	-2,2	-0,7	0,9	1,5	1,9
Esportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	2,9	2,1	3,7	4,4	5,1
Inportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	-0,6	1,3	4,0	4,8	5,6
Kanpo eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	1,4	0,4	0,0	0,0	0,0
Prezioak					
KPI	2,5	1,4	0,4	0,3	1,3
Azpiko KPI	1,8	1,3	0,9	0,8	1,2
Lan Merkaturia					
Enplegua	-0,5	-0,7	0,8	1,0	0,9
Langabezia tasa (bizt.akt. %)	11,3	12,0	11,6	11,0	10,4
Sektore publikoa					
Defizita (BPGren %)	-3,6	-2,9	-2,4	-2,2	-1,8
Zorra (BPGren %)	89,1	90,9	91,9	93,2	92,9
Kanpo sektorea					
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	1,2	1,8	2,1	2,6	2,5

(a): aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko uztailak 31.

Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

5.3 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

Urteko batez bestekoa, %	2012	2013	2014	2015(a)	2016(a)
Estatu Batuak	2,3	2,2	2,4	2,5	2,8
EDB	-0,8	-0,3	0,9	1,5	1,9
Alemania	0,6	0,2	1,6	1,5	1,9
Frantzia	0,3	0,7	0,2	1,3	1,7
Italia	-2,8	-1,7	-0,4	0,7	1,3
Espainia	-2,1	-1,2	1,4	3,2	2,7
Erresuma Batua	0,7	1,7	3,0	2,5	2,3
Latinoamerika *	2,8	2,5	0,8	0,3	1,2
Mexiko	4,0	1,4	2,1	2,5	2,7
Brasil	1,8	2,7	0,2	-1,5	0,5
EAGLES **	5,7	5,6	5,2	4,8	5,2
Turkia	2,1	4,1	2,9	3,0	3,9
Asia-Ozeano Barea	5,7	5,9	5,7	5,7	5,6
Japonia	1,8	1,5	-0,1	1,3	1,2
Txina	7,8	7,7	7,3	6,7	6,2
Asia (Txina gabe)	4,1	4,5	4,3	4,9	5,1
Mundua	3,4	3,4	3,4	3,4	3,8

(a): aurreikuspena

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

** Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko uztailak 31.

Iturria: BBVA Research eta NDF.

5.4 koadroa

Finantza aldagaiak

Interes tasa ofizialak (Epealdi amaieran)	2012	2013	2014	2015(a)	2016(a)
Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,50	1,50
EDB	0,75	0,25	0,05	0,05	0,05
Txina	6,00	6,00	5,60	4,60	4,60
Interes tasa 10 urtera (Urteko batez bestekoa)					
Estatu Batuak	1,8	2,3	2,5	2,3	2,6
Alemania	1,6	1,6	1,2	0,6	1,0
Kanbio tasa (Batez bestekoa)					
USD-EUR	0,78	0,75	0,75	0,92	0,91
EUR-USD	1,29	1,33	1,33	1,09	1,10
GBP-USD	1,59	1,56	1,65	1,53	1,65
USD-JPY	79,8	97,5	105,8	123,3	131,7
USD-CNY	6,31	6,20	6,14	6,18	6,22

(a): aurreikuspena

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko uztailak 31.

Iturria: BBVA Research eta NDF.

5.5 koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2012	2013	2014	2015	2016
Jarduera					
BPG erreala	-2,1	-1,2	1,4	3,2	2,7
Kontsumo pribatua	-2,9	-2,3	2,4	3,4	2,5
Kontsumo publikoa	-3,7	-2,9	0,1	1,3	0,6
Kapital eraketa gordina	-8,3	-3,7	4,2	5,4	6,1
Ekipoak eta makineria	-9,1	5,3	12,2	8,6	7,2
Eraikuntza	-9,3	-9,2	-1,5	5,1	4,8
Etxebizitza	-9,0	-7,6	-1,8	3,0	7,2
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	-4,3	-2,7	2,2	3,3	2,8
Esportazioak	1,2	4,3	4,2	4,6	6,9
Inportazioak	-6,3	-0,5	7,6	5,5	7,5
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	2,2	1,4	-0,8	-0,1	0,0
BPG nominala	-1,9	-0,6	0,9	4,0	4,7
(Mila milioi euro)	1055,2	1049,2	1058,5	1101,0	1152,4
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-1,7	-0,9	1,5	3,2	2,6
BPG, eraikuntza gabe	-1,1	-0,2	1,7	3,0	2,5
Lan merkatua					
Enplegua, BAI/EPA	-4,3	-2,8	1,2	3,2	3,0
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	24,8	26,1	24,4	22,2	20,5
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-4,4	-3,3	1,2	3,0	2,5
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	2,3	2,0	0,2	0,2	0,2
Prezio eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	2,4	1,4	-0,2	-0,4	1,2
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	2,9	0,3	-0,5	0,0	1,6
BPGren deflatorea	0,2	0,7	-0,5	0,8	1,9
Soldatapekoen ordainsaria	-0,6	1,7	-0,2	0,8	1,7
Unitateko lan-kostua	-3,0	-0,3	-0,4	0,7	1,5
Kanpo-sektorea					
Kont korrante balantza (BPGren %)	-0,3	1,4	0,8	1,3	1,4
Sektore publikoa					
Zorra (BPGren %)	84,4	92,1	97,7	98,8	98,0
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-6,6	-6,3	-5,7	-4,5	-3,0
Etxeak					
Errenta nominal eskuragarria	-3,0	-0,3	1,4	2,8	3,1
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	11,9	9,7	10,7	9,9	9,8

(*): Espainiako finantza erakundeei emaniko laguntzak kenduta.

Aurreikuspenen itxiera data: 2015eko abuztuak 4.

Iturria: erakunde publikoak eta BBVA Research

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatueterako ekonomialari burua

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com
+34 91 537 36 72

Espainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com
+34 91 374 39 61

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Alba Duchemin
alba.duchemin@bbva.com
+34 91 757 52 78

Juan Ramón García
juanramon.gl@bbva.com
+34 91 374 33 39

Guillermo García
guillermo.garcia.alonso@bbva.com
+34 91 757 52 78

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Antonio Marín
antonio.marin.campos@bbva.com
+34 648 600 596

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Juan Ruiz
juan.ruiz2@bbva.com
+34 646 825 405

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

Garatutako Ekonomiak

Rafael Doménech Vilariño
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso Lecourtois
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez González-Anleo
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
Nathaniel.Karp@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomiak

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomien

Zeharkako Análisis
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia
le.xia@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano Herrera
carlos.serranoh@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Manuel Ruiz Pérez
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive Carrasco
jselaive@bbva.com

Kolonia

Juana Téllez Corredor
juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea Flores
hperea@bbva.com

Venezuela

Finantza Sistemak eta Araudia

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@bbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubio@bbva.com

Finantza Barneraketa

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Política de Recuperación y

Resolución
José Carlos Pardo
josecarlos.pardo@bbva.com

Erregulazio Koordinaketa Globala

Matías Viola
matias.viola@bbva.com

Arlo Globalak

Inguru Ekonomikoak

Julián Cubero Calvo
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo Delgado
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas Sánchez-Caro
oscar.delaspenas@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Calle Azul, 4
Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas
28050 Madrid (España)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com